

DEKRETU-PROIEKTUA, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onartu zuen irailaren 27ko 139/2016 Dekretua aldatzen duena.

Biosfera-erreserben helburua da biodibertsitatearen eta aniztasun kulturalaren kontserbazioa eta garapen ekonomikoa eta soziala harmonizatzea, pertsonen naturarekin duten harremanaren bidez. Biosfera-erreserben jatorria da UNESCOk 1968an antolatutako Biosferaren Goi Bilerari; haren ondorioz, *Man and Biosphere* (Mab) programa abiarazi zen 1970ean. UNESCOk Urdaibaiko arroa biosfera-erreserba izendatu zuen 1984an, Eusko Jaurlaritzak proposatuta.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 66. artikulua araberak, hauek dira biosfera-erreserba baten helburuak: Elkarri lotutako «laborategi naturalen» multzo zehatz bati eustea; giza komunitateen eta haien garatzen diren lurraldeen arteko harremanen segimendua egiteko toki konparagarriak izango dira, eta arreta berezia eskainiko zaie bata besteari moldatzeko prozesuei eta sortutako aldaketei; ziurtatzea etengabeko konparazio eraginkorra egingo dela eta horrela sortutako informazioa aplikagarria den egoeretara transferituko dela; eta lurraldea era jasangarrian antolatu eta kudeatzeko ereduak orokortzea bultzatzea.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba babestu eta antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen bidez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbari araubide juridiko berezia eman zitzaion. Uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 1. artikulua araberak, araubide juridiko berezi horren helburua da gea, flora, fauna, paisaia, urak eta atmosfera babestea eta lehengoratztea, eta, azken batean, Urdaibaiko ekosistema guztiak babestea, euren natura-, zientzia-, hezkuntza-, kultur eta, aisia-interesa eta interes sozioekonomikoa dela eta.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana da uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 1. artikuluan adierazitako helburuetarako balio duen arau-tresna garrantzitsuenetakoa bat. Uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 15.2 artikulua araberak, erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planaren bidez arautuko dira, batetik, Urdaibaiko Biosfera Erreserba antolatze eta erabiltzeko gidalerro orokorrak; balio naturalak babesteko, lehengoratzeko, kontserbatzeko, zaintzeko eta gordetzeko beharrezkoak diren kudeaketa- eta jarduera-arauak, baita uztailaren 6ko 5/1989 Legean aurreikusitako xedeak betetzen direla bermatzeko behar direnak ere; eta, bestetik, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren zonakatzea, erabilera eta zertarako desberdineko eremuak mugatuz, horretarako babes-maila desberdinak ezarriz, baimendutako eta debekatutako erabileren araubidea eta baliabide naturalen aprobetxamenduak ezarriz, bai eta beharrezko den hirigintza-araudia ere.

Uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 15.1 artikulua aurreikusitako agindua betez, abuztuaren 3ko 242/1993 Dekretua eman zen, eta horren araberak onartu zen Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko lehen plana.

Uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 15.2 artikulua aplikatuz, uztailaren 6ko 5/1989 Legea indarrean jarri eta hamar urtera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana berrikusi zen, eta prozesu hori amaitzeko, indarrean jarri zen otsailaren

11ko 27/2003 Dekretua, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana aldatzekoa, gaur egun indarrean dagoen erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planaren aurrekaria dena.

Une honetan indarrean dagoen erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesteko irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren bidez onetsi zen.

Irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 1.2.1 artikulua araber, Eusko Jaurlaritzari dagokio erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana berrikustea eta aldatzea, ingurumen-arloan eskumena duen sailaren bitartez. Dekretu honek erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planaren «aldaketa» bat artikulatzen du –eta ez «berrikuspen» bat–, bi arrazoiengatik: alde batetik, oraindik ez da igaro hamar urteko epea, gaur egun indarrean dagoen erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana indarrean jarri zenetik; eta, bestetik, erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planari ez diote eragin goragoko mailako arauen baten zehaztapenek edo unean uneko inguruabarrek, baldin eta zuzentzeko planaren berrikuspen orokor edo funtsezko bat badakarte onespenean aintzat hartutako lurralde-eredua aldatzeagatik, eta, beraz, hain desberdina bada, non erabat berritza jo baitaiteke, eta ez desberdina soilik alderdi jakin eta osagarri batzuetan.

Indarrean dagoen erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planaren aldaketa denez, dekretu honek ez du aldatzen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren egitura (bost titulu ditu): I. titulua, zuzentzeko planaren erregulazioa egituratzen duten xedapen orokorrak jasotzen dituena; II. titulua, lurzoruaren araubidez arduratzen dena, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoruaren antolamenduko hiru kategoria nagusien araubide juridikoa definitzen duena (Gunea, Gunearen Babesa edo Amortiguazioa eta Trantsizioa); III. titulua, erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana gauzatzeko araubide orokorra hizpide duena; IV. titulua, erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana gauzatzeko araubidea hizpide duena; eta V. titulua, erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana garatzeko aurreikusitako tresnak identifikatu eta arautzen dituena.

Azaldutako guztiak aintzat hartuta, Urdaibaiko Biosfera Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearekin eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuarekin bat etorritik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak [urtea]ko [hilabetea](r)en [eguna](e)(a)n egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, onartu egiten da honako

DEKRETUA

Lehenengo artikulua.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren I. tituluko I. kapituluari 1.1.8 artikulua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«1.1.8 artikulua. Onura publikoa eta interes soziala.

Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezineko eremuei buruz ezartzen duen araubide juridikoa dela eta, eragindako ondasun eta eskubideak onura publikokotzat eta interes sozialekotasat kalifikatuta daude, desjabetze-ahalmenak egikaritzeko helburuarekin, administrazio publiko batek sustatutako jarduketak direnean, betiere Urdaibai biosfera-erreserba izendatzeko helburuetarako beharrezkoa bada».

Bigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesteko irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 1.2.1 artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«1.2.1 artikulua. Berrikustea eta aldatzea.

1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserba babesteari eta antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzari dagokio plan hau idaztea, berrikustea eta aldatzea, ingurumenaren arloan eskumena duen sailaren bitartez.

2. – Plan honen indarraldia mugagabea da, baina berrikusi egin beharko da kasu hauetan:

a) Indarrean jartzen denetik hamar urteko epea igarotzen denean.

b) Goragoko mailako arauen batek edo batera gertatutako gertakariren batek eragiten dionean, eta horiek dokumentuaren funtsezko berrikuspen orokorra egitea eragiten badute dokumentua onartzeko unean kontuan hartutako lurralde-eredua aldatzen dutelako, eta, beraz, hain desberdina bada, non erabat berritatz jo baitaiteke, eta ez desberdina soilik alderdi jakin eta osagarri batzuetan.

3.– Aldaketatzat hartuko da aurreko apartatuan jasotzen ez den plan honen edukian egindako berrikuspen oro».

Hirugarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 1.2.2 artikuluko 2. apartatuaren v) zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«v) Hilabetez jendaurreko informazioaren izapidea egitea, eta, ondoren, entzunaldi-izapide bat egitea eragindako udalei eta Bizkaiko Foru Aldundiari».

Laugarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesteko irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 1.2.3 artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«1.2.3 artikulua. Aldaketa-prozedura.

1.– Plan honen aldaketak Eusko Jaurlaritzak abiaraziko ditu, ingurumenaren arloan eskumena duen sailaren bidez, edo patronatuak eskatuta edo haren ekimen bidez.

2.– Planeko zehaztapen ukituen aldaketa, hurrengo artikuluan adierazten den kasuan salbu, 1.2.2 artikuluan ezarritako prozeduraren bidez egingo da, 2. apartatuko ii), iii) eta viii) zenbaketan deskribatutako izapideak salbu.

Bosgarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 1.2.4 artikuluko 1. apartatuko d) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«d) Plan honetan sartzten ez diren erabilerak eta jarduerak tipifikatzea».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 1.2.4 artikuluko 2. apartatuko bigarren paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Udalaren hirigintza-plangintza behin betiko onartu ondoren, horretarako eskumena duen organoak dokumentuaren kopia bidaliko dio Patronatuari. Ingurumenaren arloan eskumenak dituen saileko titularraren agindu bidez, Plan honen kartografia eguneratu eta argitaratuko da».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 1.2.4 artikuluko 4. apartatuko bigarren paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Udalaren hirigintza-plangintza behin betiko onartu ondoren, horretarako eskumena duen organoak dokumentuaren kopia bidaliko dio Patronatuari. Ingurumenaren arloan eskumenak dituen saileko titularraren agindu bidez, Plan honen kartografia eguneratu eta argitaratuko da».

4.- 5. apartatua gehitzen zaio Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 1.2.4 artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«5.- Ingurumenaren arloan eskumenak dituen saileko titularrak emandako agindu bidez tipifikatuko dira –patronatuak aldeko txostena eman ondoren– plan honetan jasotzen ez diren erabilerak eta jarduerak, aipatutako beste erabilera batzuen eraginekiko duten parekotasuna kontuan hartuta».

Seigarren artikulua.

1.2.5 artikulua gehitzen zaio Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren I. tituluko I. kapituluari, eta honela geratzen da idatzita:

«1.2.5 artikulua. Interes publikokotzat jotako zuzkidura, ekipamendu eta jarduera berriak ezartzea.

1.– Plan honetan aurreikusten ez diren eta nahitaez landa-ingurunean kokatu behar diren interes publikoko zuzkidura, ekipamendu eta jarduera berriak ezartzeak ez du plan hau aldatu beharrik izango; izan ere, gauzatu ahal izango dira, bai dagokion proiektua zuzenean gauzaturik, bai plangintza orokorraren edo dagokion plan bereziaren aldaketa alde aurretik onartuz, EAEko hirigintza-legeria orokorrak hala ezartzen duenean edo plan honetako IV. tituluak berariaz ezartzen duenean.

2.–Erakunde sustatzaileek, aurreko apartatuan aipatutako garapen-plan bereziak edo plangintza behin betiko onartu ostean, patronatuari igorriko diote dagokion dokumentazioa. Ingurumenaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren sailak emandako aginduaren bidez, eguneratu eta argitaratu egingo da plan honetako kartografia».

Zazpigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 2.3.3.4 artikuluko 2. apartatuko lehenengo puntuko bigarren paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Aireko eta lurpeko lineei dagozkien azpiegiturak ez daude grafiatuta Plan honen dokumentazio grafikoan, lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioei buruzkoan; hala ere, horietan egin beharreko esku-hartzeen ondorioetarako, T4.AZ. kalifikazioarekin hartu behar dira kontuan. 4.4.4.1 artikuluan definitutako bide publikoen kasuan, horiek zeharkatzen dituzten lurzoruen kalifikazioarekin bat etorriko da».

Zortzigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.2.2.2 artikuluko B) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«B. Debekatutako erabilerak: Plan honetako Eremu edo Zona bakoitzerako ezarritako zehaztapenek berariaz halakotzat jotzen dituztenak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan aplikatzekoa den sektoreko legeriak hala adierazten dituenak».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.2.2.2 artikuluko f) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«f) Erabilera azkendua: Lehendik zeuden baina desagertu egin diren jarduerak dira. Erabilera azkendu hori jarduera bera desagertze hutsarekin gauzatuko da, administrazio-arloan oraindik ere artxiboetan edo lehenagoko espedienteetan jasota egon arren. Udalari eskatu ahal izango zaio erabilera azkendu ez izanari buruzko frogagiria. Nolanahi ere, erabilera azkendutzat joko da erabilera hura zuen eraikuntza azkenduta dagoenean».

Bederatzigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.2.2.4 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.– Plan honen ondoreetarako, eraikinetako erabilera aldatu ahal izango da, baina berreraikitze, eraberritzeko edo zatitzeko edo batzeko esku-hartzeen bitartez bakarrik».

2.- 4. apartatu berria gehitzen zaio Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.2.2.4 artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«4.– Bizkaiko Errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauaren ondoreetarako, bai eta Kostaldeeii buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen eta Itsasertzen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren ondoreetarako ere, ez da erabilera-aldaketatzat hartuko zatitzeko edo batzeko esku-hartzea».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.2.2.4 artikulua 4. apartatua aurrerantzean 3.2.2.4 artikuluko 5. apartatua izango da.

Hamargarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.2.2.6 artikuluko 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«1.– Kokatuta dauden lurzoruaen titulartasuna eta kalifikazioa direnak direla, interes publikokotzat joko dira IV. tituluan zuzkidura- eta ekipamendu-erabilera gisa identifikatzen diren erabilerak, eta turismoko, ostalaritzako eta kanpinetarako ostatuak –nekazaritza-turismoen kasuan salbu–, bide publikoa –4.4.4.1 artikuluan ezarritakoaren arabera– eta energia berriztagarria sortzeko instalazioen bidez energia ekoizteko sistemak, autokontsumoari lotutakoak. Era berean, interes publikoko erabilera gisa hartuko dira araudi sektorialean halakotzat hartzen diren erabilerak».

Hamaikagarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.2.2.8 artikuluko 5. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«5.– Edonola ere, lursail baten lurpean edo lurgainean edozein erabilera berri ezartzeko, lurralde-, hirigintza- eta sektore-legeriak ezarritakoari jarraituko zaio».

Hamabigarren artikulua.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.1.2 artikuluko 4. apartatuari e) letra gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«e) Baso-kudeaketa jasangarriaren ziurtagiria duen zura erabiltzea egiturazko elementu nagusietan, hala nola karga-hormetan, arkupeetan eta forjaketetan».

Hamahirugarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.2.1 artikuluko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Eraikuntza hartzen duen lurzatiaren barnealdeko urbanizazioa: Lurzati hartzaileen barnean dauden elementu guztien multzoa da, baldin eta lurzati horiek har ditzaketen eraikuntzekin eta etxeko nekazaritzara bideratutako espazioekin eta lursailekin bat ez badatoz. Horretan sartzen dira, halaber, zerbitzu orokorrekiko lotura, eta lurzati hartzaileen akaberen nahiz lurzati-mugetan horiek ixteko kokatzen diren elementuen tratamendua, baita etxeko elementuak ere, hala nola pergolak, estalpeak edo barbakoarako elementuak».

Hamalauugarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.2 artikuluko 4. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Eraikuntzaren ur-kontsumoan aurrezpen eraginkorra eragiten duten mekanismoak, sistemak eta ekipamenduak erabiltzea. Horretarako, esku-hartze horietan zertzeko jarduketan artean, euri-uraren bilketa eraginkorra aurreikusitako beharko da, ondoren lurzati hartzaileko lurra ureztatzeko erabiltzearen. Horrez gain, ur grisak birziklatzen ahaleginduko da, gero komunontzi motako iturgintzako instalazioetan berrerabili ahal izateko, iragazi ondoren».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.2 artikuluko 4. apartatuari f) letra gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«f) Zuraren erabilera bultzatzea, egitura-elementuetarako, konpartimentazio-elementuetarako eta barne- eta kanpo-akaberetarako eraikuntza-material gisa»

Hamabosgarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.4 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.– Eraiste partzialerako esku-hartzea finkatzeko edo eraberritzeko esku-hartze bati loturik joan daiteke, edo, hala dagokionean, handitzeko esku-hartze bati. Horrelakoetan, eraisteko esku-hartzea berariaz jaso behar da finkatze-, eraberritze- edo handitze-espeditentean. Eraiste partzialak ezingo dio, inoiz, eraikuntzaren barne-egituraren % 50 baino gehiagori eragin, ezta alboko fatxadek eta atzekoak osatzen duten azalera osoaren ez, horrelakorik baldin badago, mehelinaren % 40 baino gehiagori ere. Era berean, ezingo dio fatxada nagusiaren % 10 baino gehiagori eragin. Neurri horiek zabaldu egin ahal izango dira obra gauzatzen den bitartean arriskurik badago; kasu horretan, lanak egin aurretik beharrezkoa izango da teknikari eskudun batek sinatutako dokumentua aurkeztea, zeinetan zehatz eta argi egiaztatuko baita partez eraitsi beharreko eremua zabaltzea dakarten obrak gauzatzea beharrezkoa dela eta zein diren fatxadetan eta estalkiaren formetan eraikuntza-tipologiaren oinarritzko antolaketa eta eraikuntzaren egitura lehengoratzeko neurriak».

Hamaseigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.5 artikuluko 2. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.– Plan honen ondorioetarako, honako hau izango da jatorrizko konfigurazio formala:

a) Eraikuntzaren fatxada nagusiaren bolumetria eta konfigurazioa, esku-hartzearen xede izango dena baino lehen».

2.- Kendu egin dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.5 artikuluko 2. apartatuko b) eta c) letrak. Honela idatzita zeuden:

«2.- Plan honen ondorioetarako, honako hau izango da jatorrizko konfigurazio formala:

b) Sistema orokorrak ezartzearen ondorioz derrigorrezko desjabetzeagatik eraitsitako eraikinaren bolumetria.

c) Hirigintzako legedia aplikatuz legezko hondamen-egoeran dagoen eraikuntzaren, edo gaur egun duen egoera dela-eta eraiki zutenean xedetzat zuen erabilera garatzea ezinezkoa den eraikuntzaren bolumetria, azalera eraikia eta fatxada nagusiaren itxuraketa».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.5 artikuluko 2. apartatuko d) letra aurrerantzean b) letra izango da, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Plan honen ondorioetarako, honako hau izango da jatorrizko konfigurazio formala:

d) Berreraikitzea eragin duen egoeraren aurretiko azpiegituraren diseinua eta trazadura».

4.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.5 artikuluko 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.– Edonola ere, eraikuntzak berreraikitze esku-hartzeak haren jatorrizko formaren itxuraketa errespetatu beharko du. Barnealdean, justifikatuta, jatorrizkoak ez diren beste egitura-material batzuk erabili ahal izango dira etxabeen, eta barneko banaketa aldatu ahal izango da, baita albo-fatxadetako eta atzeko fatxadako baoen itxuraketa ere. Eraikuntza-tipologiaren oinarritzko antolaketa mantendu egin beharko da fatxadetan eta barnealdeko banaketan, baita estalkiaren forma ere. Eraikuntza-tipologiaren oinarritzko antolaketatzat hartuko da kasuan kasuko bizitegi-eraikinaren motaren ohiko banaketa-egitura, fatxadetako nahiz barnealdeko espazioena».

5.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.5 artikuluko 5. apartatua. Honela idatzita zegoen:

«5.- Era berean, eraikinak berreraikitze kasuan, eta jatorrizkoetan ez egon arren, etxabearen okupazio bera duen sotoko oin bat eraiki ahal izango da, betiere etxabe solairu-armazoi primitiboren maila 0,50 m baino gehiago aldatzen ez bada eta solairu-armazoiaren desplazamendu altimetriko absolutuan nahiz elkarren arteko erlatiboan 0,50 m-tik gorako aldaketarik egiten ez bada; dena den, sotoko oin bat ezin izango da etxabe bihurtu, ezta jatorrizko eraikuntzak sestra gainean zituenak baino oin gehiago sortu ere».

6.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.5 artikuluko 6. eta 7. apartatuak aurrerantzean 5. eta 6. apartatuak izango dira, eta honela idatzita geratzen dira:

«5.- Berreraikuntzako esku-hartzea baimendu aurretik, berreraikiko den eraikuntzaren lurzati hartzaileak gutxienez 25 metroko aurrealdea eduki beharko du bide publiko batera, eta ur-, saneamendu- eta argindar-zuzkidurarako zerbitzuez hornituta egon beharko du. Dena den, hondakin-urak ateratzeko sistemarako eta energia elektrikoaren zuzkidurarako irtenbide autonomoetara joz gero, horiek berariaz jaso beharko dira dagokion obra-baimena eskatzeko erabiliko den proiektuan. Edonola ere, zerbitzu horiek eskuratzea eta mantentzea esku-hartzearen sustatzailearen kargura izango dira.

6.- Plan honen helburuetarako, 1950. urtearen aurretiko eraikinak berreraikitze esku-hartzeak eraberritzeko esku-hartze gisa hartuko dira, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 30. artikuluko 1. apartatuan adierazten denari jarraikiz.

Hamazazpigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.9 artikuluko 2. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.– Horretarako, kontserbazioko eta apaindurako, eta finkatzeko esku-hartzeetan jasotzen diren ekintzekin batera, eraberritzeko esku-hartzeetan honako hauek gaineratzen dira:



b) Zenbait egitura-elementuren, hots, pilare, habe, solairu-armazoi, ganga eta eskaileren kokapena, kota, forma eta neurriak aldatzea. Harri-hormazko perimetro-hormaz eta zurezko barne-egituraz hornitutako eraikuntzen kasuan, aldaketa horiek egiten direnean aurrekoen egitura-sistema eta material berdinak erabiliko dira, gutxienez beheko oineko pilareetatik aurrera. Hura behar bezala dokumentatuta badago, aurreko egiturazko irtenbide bat berreskuratu ahal izango da, lehendik dagoena ez izan arren».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.9 artikuluko 2. apartatuko c) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Horretarako, kontserbazioko eta apaindurako, eta finkatzeko esku-hartzeetan jasotzen diren ekintzekin batera, eraberritzeko esku-hartzeetan honako hauek gaineratzen dira:

c) Eraikuntzaren ingurutzailan, fatxaden konposizioa eta erritmoa esku-hartzearen xede den eraikuntza-tipologian daudenetara egokitu beharko dira:

- i. Baserrien, erroten, etxe tradizional komunen, dorretxeen eta jauretxeen tipologiaren kasuan, fatxada nagusiak ez du aldaketarik izango, eta baoak berrantolatzea baino ez da baimenduko, jatorrizko konfigurazio formalera eta, hala badagokio, forjaketen kota berrietara egokitzeko.
- ii. Eraikuntzaren kanpoaldeko albo-fatxaden aldaketa. Estilo aldetik balio berezia duten elementuak mantendu beharko dira. Esku-hartze horien xedea barnealdeko espazioak argiztatzea eta aireztatzea izango da. Ahal bada, bao berriak fatxada nagusikoen neurri berekoak izan behar dute eta, baserri, errota, etxe tradizional arrunt, dorretxe eta jauretxeen kasuan, horiek kontraleiho bidez itxi ahal izango dira bakarrik. Era berean, fatxada altuera osoan zehar bertikalki urratu ahal izango da beira edo egur bidez, eta gehienez ere 1,80 metroko zabaleran. Beheko solairuko bao berriak lurrerainokoak izan ahalko dira.
- iii. Baserrien, erroten, etxe tradizional arruten, dorretxeen eta jauretxeen tipologiaren kasuan, ondorengo altxaerek aurretiko itxura mantendu beharko dute, eta gehienez ere lau bao ireki ahal izango dira etxebizitza bakoitzeko, ahal dela fatxada nagusikoen neurri berekoak, edo fatxadako beira eta/edo egur bidezko urratuarena, altuera osoan, 1,80 metroko gehieneko zabaleran. Beheko solairuko bao berriak lurrerainokoak izan ahalko dira, baldin eta horien kokapenak ez badakar fatxadaren altxaerak fatxada nagusia itxuratzea. Baoen kokapenak eraikinaren beraren tipologiari erantzun beharko dio, eta simetrikoa izan beharko du altxaerari dagokionez. Familia biko baserrietan bao berriak zabaltzen badira, esku-hartzeak erdi bati bakarrik eragin arren multzoaren geroko altxaera bat aurkeztu beharko da, bao guztien kokapena ezarriz horretan; altxaera hori erabakigarria izango da beste erdian baoak zabaltzeko unean.
- iv. Gutxienezko bizigarritasun-baldintzak betetzen dituztelako lehendik dauden eraikuntzen kasuan, jatorrizko eraikinaren altuera osoa gaindituko duten esku-hartzeak egin ahal izango dira. Lan horien bidez, erlantz edo teilatu-hegalaren eta gailurraren kota 0,40 m handitu ahal izango da. Altueraren igoera hori ez da azalera eraikiaren zabalkuntzat hartuko, ezta bolumenaren, altueraren edo oin-kopuruaren areagotze gisa ere. Gainera, altueraren igoera hori behar bezala justifikatu beharko da, jatorrizko perimetro-hormari hura eranstea ahalbidetuko duen, egituraren egonkortasuna hobetuko duen eta estalkiko kargak hobeto banatuko dituen elementu bat hornitu behar izategatik, hain zuzen ere.

Baserrien, erroten, etxe tradizional arruten, dorretxeen eta jauretxeen tipologietan estalkiaren formak ez du aldaketarik izango, eta eraikinaren uniformizazio bolumetrikoa soilik baimenduko da azalera eraikia handitzea eragiten ez duenean. Inola ere ez da baimenduko txori-tokirik. Estalkiko isurkietan terrazak egokitzea ez da estalkiaren formaren aldaketatzat hartuko, baldin eta teilatu-hegalarekiko eta goiko gailurrekiko distantzia bi metrokoa bada, estalkiko planoan neurtuta, eta lau metrotik gora luze egiten ez bada».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.9 artikuluko 3. apartatuari bigarren eta hirugarren paragrafoa gehitzen zaizkio, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Eraberritzeko esku-hartzeak eraikuntzaren eraiste partziala eragin dezake.

Berriz ere erabilera azkendu bat ezartzen bada, edo lehendik dagoen eraikuntzan baimendutako erabilera berri bat ezartzen bada, eraberritzeko esku-hartzean ezin izango da lehendik dagoen eta baldintza onetan dagoen egiturazko inolako elementurik deuseztatu. Obra-lizentzia eskatzen den proiektuan apartatu bat sartu beharko da, zeinetan argi eta zehatz deskribatu eta ziurtatuko baitira, batetik, elementu horien kontserbazio-egoera eta, bestetik, obren fasean elementuok mantentzeko hartu behar diren neurri teknikoak

Proiektua idaztean edo lanak egitean egiaztatzen bada lanak egiten diren bitartean pertsonak arriskuan egon daitezkeela, teknikari eskudunak sinatutako dokumentu bat aurkeztu beharko da, lanak egin aurretik obrako segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren lanak egin behar direla egiaztatzen duena».

4.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.9 artikuluko 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.-Kanpoaldeko hormaren baten egitura egonkortu behar bada, edo, bere garaian, kanpoko hormaren zati bat deuseztatzea eragin zuen jatorrizko forma nahasten duen elementuren bat kendu behar bada, horma jatorrizko egoerara lehengoratzea aurreikusiko da».

Hemezortzigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.10 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Zatitzea, tipologiaren arabera:

a) Familia bakarreko eta bi familiako baserriak: dagokion eskritura publikoan, Jabetzaren Erregistroan edo udal-erroldan jasotako etxebizitza kopurua bakarrik aldatu ahal izango da. Familia bakarreko baserrien kasuan, bi etxebizitzakoa izango da gehienekoa. Familia biko baserrien kasuan, gehieneko kopurua bi izango da bizitza-unitateko, alegia, guztira, lau eraikineko.

b) Errotak, dorretxeak, jauregiak eta etxe tradizionalak:

- Erroten kasuan gehienez ere lau etxebizitzaraino handitu ahal izango da. Eraikinari uholdeek eragin ez diezaioten bermatu beharko da.
- Etxe tradizional, dorretxe eta jauregi tipologietan sartutako eraikinetan, kasuan kasuko eskritura publikoetan, Jabetza Erregistroan edo esku-hartzearen datan dagoen udal-errodan jasotako etxebizitza-kopurua bikoiztu ahal izango da, gehienez ere lau etxebizitzako mugarekin.

Plan honetan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean dauden bizitegi-eraikinak zatitzea justifikatzen da eraikitako espazio hutsak bizitegi-erabilera berriekin okupatzeko aukerarekin, hala, lurzoruak beste bizitegi-erabilera batzuekin eraldatu ez daitezzen eta, hala badagokio, zenbait jarduera desagertu izanaren ondorioz abandonu-egoeran eta kaltetuta dagoen eraikitako ondarea kontserbatzea bermatzeko».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.10 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Lursailen kalifikazioa eta eraikinaren egoera:

a) Aipatutako zatiketa hori baimenduko da, antolamenduaren barnean dauden edo toleratuta dauden arestian aipatutako tipologia guztietan.

b) Ez da inola ere baimenduko, kasuan kasuko eraikina honako egoera hauetako batean badago:

- i. Antolamenduz kanpoko egoeran.
- ii. Gunea gailkatzearen kalifikazioen barnean, ondare arkeologikoko zonak –N5.1– izan ezik, betiere, bere arkitektura- edo arkeologia-ezaugarriak direla-eta, hori ahalbidetzen duen babes-maila badu.

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.10 artikuluko 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Zatitzearen izaera juridikoa:

a) Zatitzea jabetzaren zatiketa horizontala izango da. Horretan, nekazaritzako materialak eta lanabesak gordetzeko espazioa, beheko oinean egon behar duena, eta baserrietako zona estalia eta irekia (atartea) eta baserrirako sarbideak elementu komunak izango dira.

b) Etxebizitza bakoitzari lurzati hartzailean dagokion pro-indibisioa ezartzen diren ehunekoetan islatuko da, eta ezin izango da, inola ere, lurzati-unitatearen bereizketarik edo hirigintza-partzelaziorik egin.

c) Obra amaitu ostean, obra berriaren adierazpen bat aurkeztu beharko da».

4.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.10 artikuluko 5. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«5.- Eraikinaren barnealdean:

a) Ahal dela, zatitzea solairuarekiko zeharkako norabidean egingo da, eta etxebizitza berriarekin okupatuko dira nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera edo zuzkidura-jarduera desagertzeagatik abandonatuta gera zitezkeen espazioak.

b) Zatitzea egiteko, etxebizitza jatorrizko edo nagusiaren beheko solairuan, sukaldeko, egongelako eta komunikazio-eskailerako espazioaz gain, logela nagusi bat eta bainugela oso bat egokitu beharko dira. Baserrien kasuan, ez da onartuko mehelinak ukitzea, ez bada behar diren pasaguneetarako.

c) Beheko solairuko gainerako espazio hutsetan, ondoriozko etxebizitzek espazio komun bat izango dute, eta bertan jasoko dira nekazaritzako materiala eta tresnak; eraikinaren lurzati hartzailean lehendik dagoen instalazio bat egonez gero, erabilera hori bertan ezarri ahal izango da. Era berean, etxebizitza bakoitzak esekilekurako espazio bat izan beharko du beheko solairuan, gutxienez 3 m²-ko azalera eraikia izango duena.

d) Debekatuta dago komunikazioko espazio komunak gaitzea, esaterako, eskailerak edota igogailua, etxebizitza-unitate baterako baino gehiagorako sarbide komuna ahalbidetzeko. Etxebizitza-unitate bakoitzak sarbidea izan beharko du lurzati hartzailetik, bai eta komunikazio bertikaleko eskailera ere, etxebizitzako solairuak batuko dituen.

e) Ahal dela, saihestu egingo da etxebizitza berriarekin etxebizitza nagusiak lehen solairuan okupatutako espazioak okupatzea. Baserrien kasuan, etxebizitza berriak espazio horiek okupatu ahal izango ditu, soil-soilik, eraikinaren zatitzea solairuaren luzetarako noranzkoan egiten denean.

f) Etxebizitza berriaren gutxieneko neurria 60 m²-koa izango da, eta honakoak eduki beharko ditu gutxienez: egoteko, jateko eta kozinatzeako moduko gela bat, logela bat eta gutxienez komuna, konketa eta dutxa izango dituen garbigela oso bat.

g) Egiturazko elementuak (hormak, pilareak, gatzariak, solairu-armazoiak, habetzanak, petralak eta abar) horien kontserbazio-egoerak hala egitea eskatzen duenean edo gutxieneko 2,20 metroko altueretara egokitzeko bakarrik aldatu ahal izango dira; elementu horiek zurezkoak izango dira, beheko solairuko zutabeetatik gora behintzat. Hura behar bezala dokumentatuta badago, aurreko egiturazko irtenbide bat berreskuratu ahal izango da, lehendik dagoena ez izan arren».

5.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.10 artikuluko 6. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«6.- Eraikinaren ingurutzailan, fatxaden konposizioa eta erritmoa esku-hartzearen xede den eraikuntza-tipologian daudenetara egokitu beharko dira:

a) Fatxada nagusiak ez du aldaketarik izango, eta baoak berrantolatzea baino ez da baimenduko, jatorrizko konfigurazio formalera eta, hala badagokio, forjaketen kota berrietara egokitzeko.

b) Zatitzeko esku-hartzearen bidez, albo-fatxadetan bao berriak zabaldu ahal izango dira bigarren etxebizitzara sartzeko nahiz gelak argiztatu eta aireztatzeko. Ahal dela, bao berriek fatxada nagusikoan neurri berberak izan beharko dituzte, eta kontraleiho bidez bakarrik itxi

ahal izango dira. Era berean, fatxada altuera osoan zehar bertikalki urratu ahal izango da beira edo egur bidez, eta gehienez ere 1,80 metroko zabaleran. Beheko solairuko bao berriak lurrerainokoak izan ahalko dira.

c) Ondorengo altxaerek aurretiko itxura mantendu beharko dute, eta gehienez ere lau bao ireki ahal izango dira etxebizitza bakoitzeko, ahal dela fatxada nagusikoen neurri berekoak, edo fatxadako beira eta/edo egur bidezko urratuaren neurrikoak, altuera osoan, 1,80 metroko gehieneko zabaleran. Beheko solairuko bao berriak lurrerainokoak izan ahalko dira, baldin eta horien kokapenak ez badakar fatxadaren altxaerak fatxada nagusia itxuratzea. Baoen kokapenak eraikinaren berezko tipologiaren arabera izan beharko du, eta altxaeran simetrikoa izan beharko du. Bi familiako baserrietan, zatitzeko esku-hartzeak erdi bati bakarrik eragin arren, multzoaren geroko altxaera bat aurkeztu beharko da, eta, bertan, bao guztien kokapena ezarri beharko da; altxaera hori erabakigarria izango da beste erdian zatitzeko esku-hartze bat gauzatzeko orduan».

Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen dituztelako lehendik dauden eraikuntzen kasuan, lehenagoko eraikinaren altuera osoa gaindituko duten esku-hartzeak egin ahal izango dira. Lan horien bidez, erlaitz edo teilatu-hegalaren eta gailurraren kota 0,40 m handitu ahal izango da. Altueraren igoera hori ez da azalera eraikiaren zabalkuntzat hartuko, ezta bolumenaren, altueraren edo oin-kopuruaren areagotze gisa ere. Gainera, altueraren igoera hori behar bezala justifikatu beharko da, lehenagoko perimetro-hormari hura eranstea ahalbidetuko duen, egituraren egonkortasuna hobetuko duen eta estalkiko kargak hobeto banatuko dituen elementu bat hornitu behar izateagatik, hain zuzen ere.

Estalkiaren formak ez du aldaketarik izango, eta eraikinaren bateratze bolumetrikoa baino ez da baimenduko, betiere azalera eraikia handitzea eragiten ez badu. Inola ere ez da baimenduko txori-tokirik. Estalkiko isurkietan terrazak gaitzea ez da estalkiaren formaren aldaketatzat hartuko, baldin eta teilatu-hegalarekiko eta goiko gailurrarekiko distantzia bi metrokoa bada, estalkiko planoan neurtua, eta lau metroko luzeratik gorakoa ez badute. Horri dagokionez, isurki bakoitzeko terraza bakarra ireki ahal izango da.

e) Zatitzeko esku-hartzeak, eraberritzeak bezala, eraikinaren eraiste partziala eragin dezake. Kanpoaldeko hormaren baten egitura egonkortu behar bada, edo, bere garaian, kanpoko hormaren zati bat desagertzea eragin zuen jatorrizko forma nahasten duen elementuren bat kendu behar bada, jatorrizkoen ezaugarri berak dituzten materialak erabiliz horma jatorrizko egoerara lehengoratzeko aurreikusiko da.

Proiektua idaztean edo lanak egitean pertsonentzat arriskua egon daitekeela egiaztatzen bada (obrak egiten diren bitartean), lanak egin baino lehen, eskumena duen teknikariak sinatutako dokumentua aurkeztu beharko da, zeinetan obran segurtasuna bermatzeko zer lan egin behar den ziurtatuko baita».

6.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.10 artikuluko 7. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«7.- Eraikinaren kanpoaldean:

a) Etxebizitza bakoitzari lurzati hartzailean dagokion indibisioa kontuan hartuta, debekatuta dago lurzati-itxituren mota oro etxebizitzaren artean.

b) Lurzati hartzailearen barruan, 40 m²-ko espazio libre bat gaitu beharko da, inolako eraikuntzarik gabea. Landaredia eta zoladura iragazkorrak konbinatzen dituzten tekniken bidez gaituko da, eta etxebizitza berriko ibilgailuak aparkatzeko izango da.

c) Lurzati hartzailean ez da ibilgailuak gordetzeko eraikuntzarik altxatu ahal izango. Nekazaritzako jarduerarik ez duten eraikinen kasuan, ezin izango da jarduera horretarako behar diren lanabesetarako txabolarik egin oin berrian.

d) Lur-mugimenduak plan honetako 3.3.3.12 artikulua ezartzen duenera egokituko dira. Etxebizitzen eta horiek dituzten sarbide egokituen kokapena lursaileko berezko sestrei eta esku-hartzearen aurretiko egoerari egokitu beharko zaie».

7.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.10 artikuluko 9. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«9.- Zatitzea legeztatze eskaeraren beharra ezarriko da, arau hauetara egokitu gabeko zatitzea zertu den bizitegi-eraikinen kasuan, horiek erregularizatzera begira. Zatitze berrietarako ezartzen dena betetzen dela justifikatu beharko da, beheko oinean etxebizitza nagusirako logela, bainugela eta esekitokiaren eremua egokitzen badira salbu».

Hemeretzigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.3.3.12 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Lurzati hartzaileen barnealdeko urbanizazio-obretarako esku-hartzeak honako hauek izango dira:

a) Irisgarritasun-beharretara egokitzea edo lehendik dagoen urbanizazioa eguneratzea edo/eta berrezartzea.

b) Zerbitzu orokorreko konexioak egokitzea.

c) Lurzatia ixtea, planeko 3.5.3.1 artikuluan araututako terminoetan.

d) IV. tituluan erabilera bakoitzerako araututako gehieneko neurriak dituen aparkalekua eta sarbidea egokitze beharrezko diren lanak. Lan horiek landaredia eta elementu zurrin iragazkorrak konbinatzen dituzten tekniken bidez egingo dira.

e) Igerileku-erabilera osagarri eta lotu bat ezartzea:

i. Erabilera nagusia zuzkidurari edo ekipamenduari badagokio, eta turismo-establezimenduetan, ostalaritza-establezimenduetan eta kanpinetan, 4 x 15 m-tik beherako neurriak izango ditu, eta erabilera publikoko igerilekuen osasuneko araubideari buruzko 32/2003 eta 208/2004 Dekretuetan edo horiek ordezkatzan dituen arauan ezarritakoari jarraikiz arautuko da.

ii. Erabilera nagusia familiaren bizitegi-erabilera bada, haren neurriak 3,5 x 8 m-tik edo 3 m-ko diametrotik beherakoak izango dira. Lurzati hartzaileko beste edozein eraikuntzaren loturatik aparteko lotura zuzena eta independentea izan beharko du ur-

zuzkidura eta -ebakuaziorako sarearekin, dagokion uraren ziklo integrala arautzen duen ordenantzak jasotzen dituen baldintzetan. Ezin izango du urbanizazio gogorrik izan inguruan, 60 cm-tik gorako zabaleran, eta ez du lur-mugimendurik eragingo, ez bada inguruko lursaila erregularizatzeko beharrezkoa dena; edonola ere, lursailaren topografia ez da 50 cm-tik gora aldatuko punturik okerreanean. Era berean, galarazita dago igerilekua estaltzeko elementu oro, olanak edo pertsianak izan ezik.

iii. Igerilekuetatik 2 m-ko tartea utzi beharko da, gutxienez, muga guztietara.

f) Lur-mugimenduak honako termino hauetan gauzatuko dira:

- i. Ondoren adierazten diren zehaztapenetatik haratago, lur-mugimenduak gauzatu ahal izateko, horien zeroko balantzea bermatu beharko da lurzati hartzailearen barnean. Aparteko kasuetan, proiektuan behar bezala justifikatutako ingurumen- edo paisaia-arrazoiak daudenean, soberako lurak berariaz baimendutako betelanelara garraiatu ahal izango dira.
- ii. Eraikinetara ibilgailu bidez iristeko bideak sortu behar badira, horiek sestra naturalaren eraldaketa oro saihesteko moduan gauzatu beharko dira; salbuespen gisa, metro batetik gorako kota-desberdintasuna baimenduko da, sestra naturalari dagokionez. Sestrapean kokatuta dauden solairuetara sartzeko bideen kasuan, altuera hori bi metrotara handitu ahal izango da, eta, horrenbestez, euste-hormak gauzatu ahal izango dira. Era berean, sarbide horiekin ur-pasaguneak zeharkatu behar badira, diseinua indarrean den plan hidrologikoan zehazten denera egokituko da.
- iii. Lurpeko garajeetarako sarbideak egokitzeko edo lurrei eusteko euste-hormak egitea, plan hau indarrean sartzen den unean horren beharra sortzen den lurzatiaren mugetan:
 - Lurzatiaren mugetan lurrei eusteko hormak egin beharra argazki bidez, jasotze topografikoz eta aldameneko lurzatiaren jabeek adostasuna adierazten duten idazkiaren bidez egiaztatu beharko da.
 - Horma horiek altxatzeko, bioingeniaritzako hormak erabiliko dira. Aparteko kasuetan, eta azterketa tekniko bidez behar bezala arrazoitu beharko diren geotekniako kontuek horrela egitea gomendatzen dutenean, harri-lubetak egin ahal izango dira, baldin eta hormigoizko zimendurik batere behar ez badute eta hormigoirik gabe egiten badira.
- iv. Gainerako kasuetan, galarazita egongo da lurzati edozein punturen berezko sestra metro bat baino gehiago aldatzeko xedea duen lur-mugimenduak gauzatzea.
- v. Eraikuntza-proiektuetarako % 12tik gorako malda duten zonetan lur-mugimenduak egin behar direnean, lurzorua egonkortasunaren eta higagarritasunaren gaineko inpaktu negatiborik ez dagoela bermatzeko neurriak definituko dituzte. Edonola ere, malda mugimenduaren xede diren lurren materialari dagokion pausaguneko angeluari egokitzen zaiola bermatu beharko da.
- vi. Egin nahi diren mota guztietako hondeaketa-lanetan, obren titularrak berezko landaredia berrezarri beharko du, lur begetalezko beharrezko den geruza barne, lanen ondorioz hondatuta geratu den lur-azaleretan.
- vii. Eraikuntzaren perimetroan lur-mugimenduak egin behar badira barnealdeko osasungarritasun- eta hermetikotasun-baldintzak hobe daitezela bermatzeko, itxituren estradosaren iragazkortasunerako eta gainazal azpiko eta lurrazaleko urak jasotzeko beharrezko diren lanak gauzatu ahal izango dira. Horiek egin ondoren, sestra naturala aldatu ahal izango da, gehienez ere bi metro.

g) Lurzoruaren kutsaduragatik lursailak zigilatzea.

h) Eraikuntzaren perimetroa termino hauetan egokitzea:



- i. Bizitegi-erabilera duten eraikinen kasuan, metro bateko zabalerako terrazak jarri ahal izango dira perimetro osoan, eta gehienez ere 5 metroko sakonerako eta 8 metroko luzerako eremu horizontal bat egokitu ahal izango da, landare-akaberarekin edo lursailaren gaineko zurezko tronadurarekin, beheko lauzarik gabe, bai eta haren punturik okerreanean berezko sestrarekiko 1,50 m-tik gorako kota-aldea izan gabe ere. Hala badagokio, lursailaren egokitzapen horretarako gutxienez 5 m-ko tartea utzi beharko da mugarekiko, eta tarte horrek aldatu gabe jarraitu beharko du.
- ii. Interes publikoko erabilera duten eraikuntzen edo turismo-ostatuen kasuan, horien perimetroko terraza-eremuak bertako beharrianetara egokitu beharko dira eta dagokion proiektuak justifikatu.

Hogeigarren artikulua.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.4.1.3 artikuluko 3. apartatuari c) letra gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Neurketatik kanpo geratuko dira honakoak:

- a) Igogailu-zuloa, interes publikoko eraikinetan horrelakorik izanez gero.
- b) Eskailera-sarbideko azken solairuaren proiektzioa, eraikuntzan altuera bikoitzak edo hirukoitzak egoteagatik solairu batean falta diren forjaketa-tarteena bezalaxe.
- c) Pergolak, soil-soilik landare-estalkiarekin. Bestela, ataripetzat hartuko dira».

Hogeita batgarren artikulua.

Aldatu egiten dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.4.1.6 artikuluko 2. apartatuko b) eta c) letrak, eta honela idatzita geratzen dira:

«2.- Lerrokadurak:

- a) Plan honek ez du inolako lerrokadura ezarririk jasotzen, lurzati hartzaileetan eraikuntzak kokatzeko.
- b) Garapen-tresnetako edozeinen bitartez ezarri ahal izango dira lerrokadurak, egoki iritiz gero.
- c) Sestrapeko oinak, salbu eta IV. tituluan definitzen diren interes publikoko erabileren edo turismo-ostatuen kasuan, ez du, inola ere, sestra gaineko oinen lerrokadura gaindituko».

Hogeita bigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.4.1.8 artikulua 1. apartatuaren a) letraren ii) zerbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«1.- Sotoko solairua:

- a. Honako hau hartzen da sototzat (SS):
 - i. Sabaiko puntu guztiak berezko sestraren azpitik dituen solairua, Eraikuntzaren fatxada-planoekin kontaktuan.
 - ii. Perimetroaren % 20 baino gehiago sestra naturaletik metro bat baino gehiago ateratzen ez den solairua».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.4.1.8 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Erdisotoko solairua (ESS):

- a) Erdisotoa:
 - i. Bere perimetroaren % 20an baino gehiagoan, berezko sestratik gora 1 m baino gehiago ateratzen den solairua, eta forjaketa berezko sestraren mailatik behera daukana.
 - ii. Fatxada-azaleraren % 65 baino gutxiago berezko sestratik behera eta eraikuntzaren fatxada-planoekin kontaktuan daukan solairua».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.4.1.8 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Beheko solairua (BS):

- a) Beheko solairua:
 - i. Fatxada-azaleraren % 65 baino gehiago berezko sestratik gora eta eraikuntzaren fatxada-planoekin kontaktuan daukan solairua.
 - ii. Forjaketa berezko sestraren mailan daukan solairua.
- b) Sotoko edo erdisotoko solairutik gora dagoen hurrengoa.
- c) Haren gutxieneko altuera librekoa honako hau izango da:
 - i. 2,50 m oin berriko eraikuntzetan.
 - ii. 2,20 m lehendik dauden eraikuntzetan».

Hogeita hirugarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.4.1.9 artikuluko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«IV. tituluan zehaztutako erabilera batzuen kasuan, planak zehaztuko ditu horietarako berariaz definitutako solairu kopurua, teilatu-hegalen altuerak eta gehieneko gailur baimenduak. Berariazko zehaztapenik egiten ez bada, jarraian orokorrean definitzen dena izango da baimendutako gehieneko solairu kopurua:

a) Bizitegi-eraikinen kasuan: beheko solairua (BS), goiko solairua (1S) eta teilatupeko solairua (TS). Oin berriko eraikinen kasuan, gainera, sotoko solairua (SS) edo erdisotoa (ESS) eraikitzea baimenduko da».

2.- 3.4.1.9 artikuluko 1. zenbakiari buruzko aipamena kendu da, artikuluko horrek ez baitauka apartatu gehiagorik.

Hogeita laugarren artikulua.

1 Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.4.2.1 artikuluko 3. apartatuko hirugarren paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Etxebizitza blokearen tipologiatzat identifikatzen da komunikazio-gune bat eta barneko elementu komun batzuk dituen, eta solairu bakoitzean, eta behin eta berriz errepikatzen den egitura bati jarraikiz, bizitegi-unitate bat edo gehiago banatzen dituen».

Hogeita bosgarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 3.5.3.1 artikuluko 1. apartatuko lehen paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«1.- Nekazaritza- edo abeltzaintza-erabilera duten lurzatiaren itxiturek –lurzati horiek hartzen dituzten produkzio-erabilerak direla-eta itxiturek behar dituztenean– eta eraikuntzak hartzen dituzten lurzatiaren itxiturek 1 metroko gutxieneko tartea mantendu beharko dute bide edo bidezidorren ertzeakiko. Oilo-haztegien kasuan, itxitura perimetralak eraiki ahal izango dira, basa-fauna sartzeari saihesteko eta, horrela, hegaztiak gaixotasunetatik eta harraparietatik babesteko. Itxitura metaliko zurrun galbanizatuaren bidez egingo dira itxitura horiek, eta akabera berdea edo sare elektrosoldatua izango dute, 1,8 m-tik gorakoa ez dena.

Itxiturek foru-errepideekiko edo trenbide-sarearekiko mugan eginez gero, itxitura horiek kasuan kasuko arau sektorialak ezartzen dituen tartekak eta ezaugarri fisikoak bete beharko dituzte. Arau sektorial horrek ezaugarri fisikoak arautzen ez baditu, itxitura metaliko zurrun galbanizatuz edo sare elektrosoldatu bat erabiliz egin ahal izango dira; dena den, horiek 1,8 metroko altuera izango dute gehienez ere».

Hogeita seigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.1.1 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Titulu honetan jasotako erabileren sistematizazioa definizio ireki eta ez baztertzailatzat ulertuko da. Sailburuaren agindu bidez, eta patronatuak alde aurretik emandako aldeko txostenaren bitartez, plan honetan jasotzen ez diren erabilerak eta jarduerak tipifikatu ahal izango dira».

Hogeita zazpigarren artikulua.

1.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.1.3 artikulua. Honela idatzita zegoen:

«4.1.3 artikulua. Mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen arloko baimenak eta emakidak

1.- Mehatxupearan dauden flora- eta fauna-espezieei eragiten dieten jarduketa guztiek Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako kudeaketa-planetan eskatutako baimenak eta txostenak izan beharko dituzte».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.1.4 artikulua aurrerantzean 4.1.3 artikulua izango da.

Hogeita zortzigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.2.1.1 artikuluko 3. apartatuko B) letra, eta gehitu egieten dira B.4. («B.4. Lehiaketak edo zeharkaldiak landa- eta ur-inguruneetan») eta B.5. («B.5. Bizikleta-zirkuituak») apartatuetako erabilerak.

Hogeita bederatzigarren artikulua.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.3.2.1 artikuluko 5. apartatuko a) letrari iv) zenbakia gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«5.- Honako lehentasunezko jarduera hauek ezartzen dira ingurumen-lehengoratzeari bultzatzeko:

- a) Eremu guztietan:
 - i. Espezie exotiko inbaditzaileak deuseztatzea.
 - ii. Eremu bakoitzeko ingurumen-ezaugarriekin bat datozen espezieak birsartzea edo indartzea.
 - iii. Eremuaren funtzionalitatean modu negatiboan eragiten duten airetiko edo lurpeko instalazioak, eraikuntzak eta azpiegiturak kentzea.
 - iv. Natura- eta kultura-ondarearen interpretazioa».

Hogeita hamargarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.2.5 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Gobernuak ezarriko ditu aireontziek naturagune babestuetan eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu babestuetan hegaldiak egiteko murriztapenak edo debekuak, Aire

Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/1960 Legearen 3. artikulua xedatutakoa betez. Mugak edo debekuak izapidetzean, nahitaezkoa izango da Defentsako eta Sustapeneko Ministerioen arteko Batzordearen txostena eta biodibertsitatearen arloan eskumenak dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuaren txostena».

Hogeita hamaikagarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.2.9 artikuluko 2. apartatuko c) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Hura garatzeko zurezko instalazio desmontagarriren bat behar bada, patronatuak emandako txostena beharko da, lurzoruaren kalifikazioaren arabera dagokiona. Era berean, eta kasu honetan, arau hauek beteko dira:

c) Barrutirako sarbidea, lehendik ez dagoen kasuetan, lotura-bide edo bidezidor motako azpiegitura baten bidez egin beharko da».

Hogeita hamabigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.2.10 artikuluko 2. apartatuko c) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Erabilera honetarako espazioak modu iraunkorrean prestatu ahal izango dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezineko gunearen babesaren eta trantsizioaren gaitasunak. Horretarako, honako arau hauek ezarri dira:

c) Barrutirako sarbidea, lehendik ez dagoen kasuetan, lotura-bide edo bidezidor motako azpiegitura baten bidez egin beharko da».

Hogeita hamahirugarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.2.19 artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.4.2.19 artikulua.- Abentura-kiroletako jarduerak. B.2.6.

1.- Abentura-kiroletako jarduerak dira abentura-kiroletako zirkuituak gaitzea, ibilbideak, igarobide esekiak eta baso-inguruneetako tirolinak barne hartuta.

2.- Honako arau hauek ezartzen dira:

a) Erabilera hau trantsizioko gaitasun kategorian sartuta dauden lurzatiengan baimentzen da, nekazaritzako gutxieneko azaleratik gorakoa badute. Jarduerak zuzentzeko elementuen gaitasun egiten badira, espezie aloktonoen sailaketak izan beharko dira.

- b) Jarduera lurzatiaren mugetatik gutxienez 10 metrotara gauzatu beharko da.
- c) Jarduera martxan jarri aurretik, argindar- eta kanpoko argiteria-sare orokorrerako konexioa izan beharko du lurzatiak. Inolako konexiorik ez badago, zerbitzu horiek energia berriztagarritzko sistema autonomoen bidez bermatu beharko dira.
- d) Debekatu egingo da instalaziorik egitea, jarduera osatzen duten zirkuituak garatzeko beharrezkoak diren instalazioez gain, bai eta jendeari arreta emateko zerbitzuak eta jarduerari lotutako zerbitzu sanitarioak gaitzeko beharrezkoak diren instalazio desmontagarriez gain ere.
- e) Jendeari arreta emateko zerbitzuek eta zerbitzu sanitarioek ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
- i. Gehienez 100 m²-ko azalera izatea eta edozein mugatetik 10 m-tik gorako distantziara jartzea.
 - ii. Zurezko elementu aurrefabrikatuekin egin beharko dira.
 - iii. Ez dute zimendatzerik izango, baina asko jota 25 cm lodiko lur gaineko lauza bidez egindako zimendatze-lanak izan ahalko dituzte; lauza horiek ez dira lurretik gora aterako. Ezin izango dira modu egonkorrean finkatuta egon lurzatian, eta eraitsi gabe jaso ahal izango dira, elementu guztiak erraz garraiatzeko modukoak izanik.
 - iv. Konfigurazioak honelakoa izan beharko du:
 - Solairu bakarra izango du.
 - Zurezko, beirazko, zeramikazko teila gorriko eta/edo landarediko akaberak izango ditu.
 - v. Kontsumo ia nuluko edo pasiboko eraikuntzak izan beharko dute, eta energia elektrikoa, berokuntza eta ur bero sanitarioa sortzeko, energia berriztagarriko energia ekoizteko sistemak soilik erabili ahal izango dira. Kasu horretan, ekoizpen-sistemak barruan edo inguratzailean kokatu beharko dira.
 - vi. Jarduera abian jarri aurretik sare orokorrera konektatuta egonez gero, ur-hornidurako sistema izan beharko dute, deposituekin, eta uraren kudeaketa.
 - vii. Hondakin-urak husteko, sare orokorrerako konexio berririk ezin izango da egin; hala badagokio, 4.1.2 artikuluan ezarritakoa bete beharko da, eta urak iragazki berdez arazteko sistemak erabili beharko dira.
 - viii. Jarduera urte eta erdi baino gehiagoz desagertzen edo gelditzen bada, sustatzaileak, hurrengo sei hilabeteetan, jardueraren elementu eta eraikuntza guztiak erabat kendu beharko ditu, eta lurzattia jatorrizko egoerara itzuli beharko du. Neurri hori bermatzeko, dagokion udalean abal bat jarriko da, elementu horiek kentzearen kostua bermatze aldera.
- f) Debekatuta egongo da jarduera martxan jartzeko inolako azpiegiturarik egitea:
- i. Lurzatiak ibilgailuentzako sarbidea izan beharko du, landa-bide edo errepide batetik.
 - ii. Lurzatiaren barnean gehienez ere 10 ibilgailu hartzeko moduko aparkaleku-zona bat egokitu ahal izango da. Horren tratamenduan material mistoak erabili beharko dira, landaretza haztearekin batera, azalera zurrun bat lortu ahal izateko».

Hogeita hamalagarren artikulua.

Irailaren 27ko 139/2016 Dekretuari, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duenari, 4.4.2.22 artikulua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«4.4.2.22 artikulua.- Lehiaketak edo zeharkaldiak landa- eta ur-ingurunean B.4.

1.- Jarduera horretan sartzen dira Urdaibaiko Biosfera Erreserba osoan oinez, bizikletaz, igerian, paddlean edo piraguan parte hartzen dutenentzat antolatzen diren lehiaketak edo zeharkaldiak, baldin eta plan honetan urbanizaezin gisa sailkatutako eremuak zeharkatzen badituzte.

2.- Horiek antolatzeko, honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:

a) HUPA kalifikatutako lurzoruetan hasi eta amaituko da jarduera, eta horretarako elementu guztiak izan beharko ditu lurzoru horietan. Ahal dela, garraio kolektiborako sarbide zuzena duten kokalekuak bultzatuko dira.

b) Jarduera ibilbide bakarrean egin beharko da, eta hainbat proba egin ahal izango dira. Jarduera lehorrean egiten bada, ibilbidearen % 65 gutxienez bideetatik edo bide publikoetatik egingo da.

c) Parte-hartzaileen gehieneko kopurua eta taldeko kirol-proben ordutegia:

- i. Bizkaiko Lurralde Historikoko naturagune babestuetan eta/edo espezie mehatxatuak erasateko arriskua duten naturaguneetan egin nahi diren kirol-proba kolektiboak: Parte-hartzaileen gehieneko kopurua eta horiek egiteko zehaztapenak arautzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 21eko 60/2019 Foru Dekretuari jarraituko zaio. Horren bidez arautzen da nola lortu baimena kirol-proba kolektiboak Bizkaiko Lurralde Historikoko naturagune babestuetan egiteko, espezie mehatxatuak erasateko arriskua dagoenean.
- ii. Bizkaiko Lurralde Historikoko naturagune babestuetatik kanpo eta/edo espezie mehatxatuak erasateko arriskua duten naturaguneetatik kanpo egin nahi diren kirol-proba kolektiboak: gehienez 8.000 parte-hartzaile izango dira aipatutako modalitateetan edo horien batukari gisa.

d) Ezin izango da pinturarekin edo elementu ezabaezinekin markarik, balizajerik edo seinalerik egin. Ibilbidea seinaleztatzeko erabiltzen diren elementuak probako azken parte-hartzailea seinaleztatutako puntutik igaro eta berehala kendu beharko dira.

e) Erakunde antolatzaileak, proba amaitu eta berehala, parte-hartzaileek edo ikusleek uzten dituzten hondakinen gaikako bilketa egin beharko du.

f) Dagoeneko existitzen diren pista edo bidezidorretatik kanpo ez da bizikleta-probarik egiteko baimenik emango.

g) Jardueraren inskripzioak ehuneko bat izan beharko du, eta hori jarduera egingo den eremuetako ingurumena leheneratzera bideratuta egongo da.

h) Jan-edarien postuak trantsizioko gainkategoria jarri beharko dira, honela kalifikatutako lurzoruan:

- i. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuko trantsizioko landa paisaiako zonan –T1.TLP–.
- ii. Landagunearen eremuan –T3–.



- iii. Zona publikoak edo pribatuak, eraikuntza-asentamenduak dituztenak edo ez dituztenak, ekipamendu komunitarioarako beharrezkoak direnak eta sistemen eremuko –T4.EKR– lurzoru urbanizaezinean prestatu behar direnak.

3.- Jarduera egin aurretik, erakunde sustatzaileak ingurumen-memoria bat egin beharko du, eta gutxienez honako agiri hauek jasoko ditu:

- a) Parte-hartzaileen gehieneko kopuruaren justifikazioa, zeharkatu beharreko eremuen harrera-gaitasunaren arabera.
- b) Ingurumen-arbitroaren figurak egin beharreko ingurumen-zaintzako plana.
- c) Ingurumen-arbitroa izendatzea.
- d) Jarduera egitearekin lotutako ingurumen-inpaktu negatiboak minimizatzeko metodologia.
- e) Zeharkatu beharreko eremuetako natura- eta kultura-ondarea zabaltzeko programa, ekitaldiaren aurreko faseetan, ekitaldian zehar eta ekitaldiaren ondoren.

4.- Jarduera egiten den bitartean, ingurumen-arbitroak ingurumen-zaintzako plana betetzen dela zaindu beharko du.

5.- Jarduera amaitu ondoren, amaierako ebaluazio-txosten bat egin beharko da. Ekitaldiaren ingurumen-aztarna ebaluatuko du, gogobetetzeari eta balorazioari buruzko inkestak barne hartuko ditu eta hurrengo edizioetarako hartu beharreko neurriak jasoko ditu».

Hogeita hamabosgarren artikulua.

Irailaren 27ko 139/2016 Dekretuari, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duenari, 4.4.2.23 artikulua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«4.4.2.23 artikulua.- Bizikleta-zirkuituak. B.5.

1.- Bizikleta erabiltzeko, bizikletan ibiltzen gozatzeko eta txirrindularitzarako behar diren ezagutzak eta esperientziak irakasteko zirkuituak dira.

2.- Bizikleta-zirkuituak egokitu ahal izango dira 5.000 m²-tik gorako azalerako lurzatietan, honela kalifikatutako lurzoruetan:

- a) Baso eremuak –T.2–.
- b) Nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuetako trantsizioko landa-paisaiako zonak –T1.TLP–.
- c) Sistemen eremuetako –T4.AZ– komunitatearen azpiegiturak eta zerbitzuak hartzeko zonak.

d) Zona publikoak edo pribatuak, eraikuntza-asetamenduak dituztenak edo ez dituztenak, ekipamendu komunitariorako beharrezkoak direnak eta sistemen eremuko –T4.EKR– lurzoru urbanizaezinean prestatu behar direnak.

3.- Debekatuta egongo da jarduera abian jartzeko azpiegiturak egitea, baina zirkuituan jarduera erraztuko duten elementuak jarri ahal izango dira, bai eta aparkaleku bat ere, gehienez 10 ibilgailurentzat, lurzatiaren barruan. Horren tratamendua material mistoak erabiliz egin beharko da, landaredia hazten den bitartean azalera zurruna izan ahal izateko.

4.- Lurzatiak ibilgailuentzako sarbidea izan beharko du, landa-bide edo errepede batetik.

5.- Zirkuituak lurrez edo zagorrez egingo dira.

6.- Lurzati hartzailean, aldi berean, ingurumen-leheneratzea egin beharko da, zonaren balio ekologikoa handituz».

Hogeita hamaseigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.2 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Jarduerarekin bateragarriak diren jardueren kasuan, honako praktika hauek baimenduko dira:

2.- Aldatu egiten dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.2 artikuluko 3. apartatuko b) eta d) letrak, eta honela idatzita geratzen dira:

«3.- Ezarpen berriko erabilera hori baimenduko da honako kalifikazio hau duten lurzoruetan:

b) % 30 eta 45 bitarteko malda duen baso-zona –T2.B1–.

Salbuespen gisa, fruta-arbolak landatu, moztu eta inausi ahalko dira, aurreko 2c apartatuan deskribatu denez, % 45 eta 60 bitarteko maldak dituzten baso-zonetan –T2.B2–. Horretarako, zapaldak eratu ahal izango dira, bioingeniaritzako teknikekin eginak, fruitua ustiatzean higadurak eragindako lurzoru-galerak murrizteko.

d) Gunearen babes gaiterriko eremuak eta zonak, salbu eta baso autoktonoen eremua –B6–.

Erabilera hori d) apartatuan deskribatutako zonetan ezartzeko, nekazaritza-arloan eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak dagokion txostena eskatuko dio Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbatzaileari, hark bertan egon daitezkeen eta jardueraren garapena baldintza dezaketen elementu naturalak azter ditzan, baso naturalak edo istingak sor daitezkeen zonak, esaterako, baita eremuko eguzkialdiak ere.

Txostenak ustiapena plan honen helburuetara egokitzen dela aztertuko du, eta dagozkion neurriak ezarri ahal izango ditu hautematen diren ingurumen-inpaktu potentzialak arintzeko

edo deuseztatzeko, eta bereziki, faunarentzako pasaguneak eta galeria-basoaren eta artadiaren babesa eta hobekuntza bermatzeko.

Txostena emateko, nekazaritzaren arloan eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak garatu nahi den nekazaritzako jarduera deskribatzen duen dokumentazioa igorriko du, Nekazaritza Ustialekuen Erroldan azaltzen diren datuak bidaliz nahiz proiektua edo bideragarritasun-plana bidaliz, jarduera ezartzeko beharrezkoa den kasuetan. Konpontzeko moduko akatsik badago edo plana behar bezala aztertzeko beharrezko dokumentazioren bat falta bada, eskatzaileari emango zaio aditzera, hamabost eguneko epean akats eta gabezia horiek konpondu ahal izan ditzan».

Hogeita hamazazpigarren artikulua.

Aldatu egiten dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.3 artikuluko 4. apartatuko b) eta c) letrak, eta honela idatzita geratzen dira:

«4.- Nekazaritzako erabilerarekin lotutako oin berriko instalazioen diseinuan, ondoko zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:

b) Ahal dela, isurialde biko estalkiz egin beharko dira, isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda dutela. Akabera gorria edo gardena izango dute.

c) Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, edo material zeharrargi batekoa, edo zuriz pintatutako zarpiatua. Debekatuta dago hormigoizko blokez egitea akabera, pintatuta egon zein ez».

Hogeita hemezortzigarren artikulua.

Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.4 artikuluko 2. apartatuko v) zenbakia. Honela idatzita zegoen:

«2.- Era berean, mota horretako instalazioak ezarri ahal izango dira honako leku hauetan:

v) Artadi kantauriarren eremuko –N3– zelai eta laborantza eremuetan –N3.4– dauden eta erabilera toleratua duten eraikuntzetan».

Hogeita hemeretzigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.5 artikuluko 4. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Era berean, mota honetako instalazioak jarri ahal izango dira lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten eraikuntzetan, betiere honako zehaztapen hauetara egokituta:

a) Plan honek gunearen babes gainkategoria eta trantsizioko gainkategoria gisa kalifikatzen dituen lurzoruetan kokatu beharko da eraikuntza, salbu eta sistemen eremuen –T4– kasuan. Era berean, ondare arkitektonikoko zonetan –N5.1– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten eraikuntzetan jarri ahal izango dira».

Berrogeigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.9 artikuluko 4. apartatuko d) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«4.– Plan honen arabera, jarduera hau garatzeko honako hau izan behar du lurzoruen kalifikazioak:

d) Gunearen babes gainkategoriaiko eremuak eta zonak, baso autoktonoen eremua izan ezik».

Berrogeita batgarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.10 artikuluko 2. apartatuko f) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.– Egiten diren instalazio berriek, hurrengo artikuluetan azaltzen diren zehaztapenez gain, honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

f) Instalazioak hartzeko lurzatiaren gutxieneko azalera Bizkaiko Lurralde Historikorako Gutxieneko Labore Unitate gisa definitzen dena izango da, salbu eta lurzati landagunearen eremuan badago, horrelako kasuetan, gutxieneko azalera 2.000 m²-koa izango baita.

Abeltzain profesionalen ustiatuekin lotutako instalazioen kasuan, eta jarduerak aurreko apartatuan ezarritako lurzatiaren azalera berdina edo handiagoa badu, instalazioak jarduerarekin lotuta dauden eta aurreko paragrafoan adierazitako neurriak baino txikiagoak izango dituzten beste lurzati hartzaile batzuetan kokatu ahal izango dira. Lurzati hartzaile horien kalifikazioetan instalazioak ezartzea baimendu beharko da.

Edonola ere, instalazio horiek artikuluko honetan eta hurrengoetan zehaztutako gainerako zehaztapen guztiak bete beharko dituzte oin berriko instalazioak ezartzeko edo lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo azkenduak dituzten eraikuntzetan eraberritzeko esku-hartzeen bitartez».

2.- Aldatu egiten dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.10 artikuluko 2. apartatuko h) letrako ii) eta iii) zenbakiak, eta honela idatzita geratzen dira:

«2.– Egiten diren instalazio berriek, hurrengo artikuluetan azaltzen diren zehaztapenez gain, honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

h) Abeltzaintzako instalazio horiek diseinatzeke orduan, honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan, oro har:

ii) Isurialde biko estalkiz egin beharko dira, isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda dutela. Akabera gorria edo gardena izango dute.

iii) Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, edo material zeharrargi edo itsu batekoa eta erraz garbitzeko modukoa, edo zuriz pintatutako zarpiatua. Debebatuta dago hormigoizko blokez egitea akabera, pintatuta egon zein ez».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.3.10 artikuluko 4. apartatuari c) letra gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«4.– Manieiu-instalazioak eta instalazio sanitarioak, eta gehienez ere 3 azienda larriko unitate barne hartzeko instalazioak ezarri ahal izango dira, lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo azkenduak dituzten eraikuntzetan eraberritzeko esku-hartzeak garatuz. Honako zehaztapen hauek bete beharko dira horretarako:

c) Instalazioek gehienez ere bi urte baino gehiagoko hiru behi-azienda larri unitate hartu ahal izango dituzte, edo abeltzaintzako ustiategietako arau tekniko, higieniko-sanitario eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan edo haren ordezkotako arauan identifikatutako animalia-espezieen unitate kopuru baliokidea».

Berrogeita bigarren artikulua.

Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.11 artikuluko 2. apartatuko v) zenbakia. Honela idatzita zegoen:

«2.– Era berean, mota horretako instalazioak ezarri ahal izango dira honako leku hauetan:
v) Zelai eta laborantza zonetan –N3.4– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten eraikuntzetan.

Berrogeita hirugarren artikulua.

1.- Aldatu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.12 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Ustiapena nekazaritza-balio handiko zona –T1.A1– gisa kalifikatutako lurzoruetan garatzen bada, eta hura hartzen duen lurzatiak ez badu trantsizioko landa-paisaiako zona –T1.TLP– edo landagunearen zona –T3– gisa kalifikatuta dagoen eta instalazioa har dezakeen inolako lursailik, instalazioa nekazaritza-balio handiko zona –T1.A1– gisa kalifikatutako lurzoruetan egin ahal izango da. Gutxieneko lurzati hartzailearen, eraikigarritasunaren eta gehieneko azalera eraikiaren parametroak trantsizioko landa-paisaiako zonetan kokatu beharreko mekanizazio- eta artisau-instalazioetarako ezarritakoak izango dira, hurrenez hurren».

2.- Aldatu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.12 artikuluko 6. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«6.- Era berean, mota horretako instalazioak ezarri ahal izango dira lehendik dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten eraikuntzetan, baldin eta leku hauetan badaude:

- i) Nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuetan –T1– eta landagunearen eremuetan –T3–.



- ii) Itsasadarreko ertzak babesteko eremuetan –B1– eta kostaldea babesteko eremuetan –B2–, betiere itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasun zonatik kanpo badaude.
- iii) Ondare historiko-arkitektonikoko zonetan –N5.1–».

Berrogeita laugarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.16 artikuluko 5. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«5.– Era berean, lehendik dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten eraikuntzetan horrelako instalazioak ezarri ahal izango dira, baldin eta plan honek gunearen babes eta trantsizioko galkategoria gisa kalifikatutako lurzoruetan kokatzen bada eraikuntza».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.16 artikuluari 6. apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«6.– Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartze baimenduak plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzatiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

- a. Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
- b. Barnean, jarduera honetarako aparkaleku-plazak hartzeko zona bat izan dezakete, gehenez ere sei ibilgailu hartzeko trantsizioko galkategorian kokatutako lurzatiaren kasuan, eta hiru ibilgailu hartzeko gunearen babes galkategorian daudenetan».

Berrogeita bosgarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.17 artikuluko 3. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Erlezaintzako produktuen lehen eraldaketa, ontziratzea eta salmenta honako leku hauetan gauzatu ahal izango da:

b) Lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten eraikuntzetan, baldin eta plan honetan gunearen babes eta trantsizioko galkategoria gisa kalifikatutako lurzoruetan badaude. Era berean, ondare arkitektonikoko zonetan –N5.1– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten eraikuntzetan jarri ahal izango dira».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.17 artikulua 3. apartatuko ii) zenbakia aurrerantzean artikuluko horretako 4. apartatua izango da.

Berrogeita seigarren artikulua.

Aldatu egiten dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.18 artikuluko 2. eta 3. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

«2.- Instalazio horiek oin berrian eraiki ahal izango dira edo nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuetako trantsizioko landa-paisaiako zona –T1.TLP– gisa kalifikatutako lurzoruetan lehendik dauden eraikuntzetan.

3.- Oin berriko instalazioen kasuan, plan honek $0,05 \text{ m}^2\text{e}/\text{m}^2\text{l}$ -ko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten du instalazioaren lurzati hartzailearen m^2 bakoitzeko; dena den, azalera eraikia 750 m^2 -koa izango da gehienez ere».

Berrogeita zazpigarren artikulua.

Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.19 artikulua. Honela idatzita zegoen:

«4.4.3.19 artikulua.- Gehienez 3 azienda larri unitateren aterperako instalazioak. C.2.2.9.

1.- Gehienez ere 3 azienda larri unitateri (ALU) aterpea emateko instalazioek gehienez ere bi urte baino gehiago dituzten hiru behi-azienda larri unitate hartu ahal izango dituzte, edo abeltzaintzako ustiatagietako arau tekniko, higieniko-sanitario eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan edo haren ordezkoko arauan identifikatutako animalia-espezieen unitate kopuru baliokidea.

2.- Era berean, instalazioek espazio bat hartu ahal izango dute, abeltzaintzako lanabesak eta produktuak biltegitzeko.

3.- Instalazio horiek ezin izango dute simaurren edo minden erabilera aurreikusi nekazaritzako lurrak ureztatu ahal izateko, kontzeptu horiek 515/2009 Dekretuan edo haren ordezkoko arauan zehazten diren baldintzetan.

4.- Oin berriko instalazioak eraiki ahal izango dira, betiere honako arau hauei jarraikiz:

a) Horrelakoak eraikitzeko, instalazioa hartzen duen lurzatiak gutxienez 2.000 m^2 -ko azalera eduki behar du.

b) Instalazioek ezaugarri hauek edukiko dituzte:

i) Gehieneko neurriak, oinplanoan, $8 \times 7 \text{ m}$ -koak izango dira.

ii) Bi isurialdeko estalkiz egin beharko dira, gailurra horizontalean dutela. Teilatu-hegalaren altuera $3,00 \text{ m}$ -koa izango da, eta gailurrarena, berriz, $4,20 \text{ m}$ -koa. Estalkiaren akabera kolore gorritz egingo da.

iii) Fatxadako itxiturek zuriz edo zurez zarpiatutako akabera izango dute, $0,15 \text{ m}$ zabaleko oholak erabilita. Hiru albo itxi izan beharko dituzte gutxienez. Era berean, gehieneko dimentsioen barnean, zona estali baina ez itxi bat prestatu ahal izango da, uria egiten duenerako aterpe gisa.

5.- Gainera, lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten eraikuntzetan ezarri ahal izango dira, erabilera aldatzea ahalbidetzen duten eraberritzeko esku-hartzeen bidez.

6.- Bi kasuetan, instalazioa hartzen duten lurzatiak kokatuta dauden lurzoruek plan honetan duten kalifikazioa honako hauetakoren bat izango da:

- i) Nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuak –T1–.
- ii) Landagunearen eremuak –T.3–.
- iii) % 30 eta 45 arteko malda duen baso eremua –T2.F1–.

6.- Instalazio horiek ez dira bizitokiak izango eta ezin izango dute egoitzarako moduko elementurik izan, ez tximiniarik, antenarik edo higiene-zerbitzurik, esaterako. Dena den, lanabesak eta makineria txikia gordetzeko espazio bat izan dezakete, baita ur-hartune bat eta harraska bat ere. Kasu horretan, jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira».

Berrogeita zortzigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.20 artikuluko 6. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«6.- Salbuespen hori jarraian adierazten diren baldintzak eta kalifikazioak betetzen dituzten lurzoruetan dauden ustiategi eta lurzati hartzaileetan gertatuko da:

- a) Nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuetako trantsizioko landa-paisaiako zonak –T1. TLP–. Kasu horretan, eraikina hartzen duen lurzatiak bost hektarea edo gehiago izan beharko ditu; azalera horretatik, nekazaritzako gutxieneko lurzati baten neurriak kalifikazio horren barruan egon beharko du, eta eraikin berria hartuko duen zona gisa eratu beharko da, eta eraikin berria hartuko duen eremua izango da. Gainera, lurzatiak, batez beste, % 20tik beherako malda eduki beharko du.

2.- Aldatu egiten dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.20 artikuluko 6. apartatuko e) letrako v) zenbakiko lehen eta bigarren puntuak, eta honela idatzita geratzen dira:

«6.- Salbuespen hori jarraian adierazten diren baldintzak eta kalifikazioak betetzen dituzten lurzoruetan dauden ustiategi eta lurzati hartzaileetan gertatuko da:

e) Eraikuntzetarako arau estetikoak honakoak izango dira:

v) Estalkia egiteko lana honela zertuko da:

- Estalkiak, isurialde bikoia eta maldaduna, hirugarren isurkin bat eduki ahal izango du, miru-buztan eran. Hark gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izan beharko du. Gutxienez 1,00 m ateratzen diren teilatu-hegalak izango ditu.
Dena den, eta bolumen-konposizio osoan txertatuta geratzen denean, estalkiaren % 25erainoko zatia laua egin ahal izango da. Kasu horretan, ahal dela, landare-estalkia egin beharko da, eta mantentze-lanetarako bakarrik iritsi ahal izango da bertara.
- Galarazita dago isurkiaren lautasuna hausten duten txori-toki motako elementuak edo mantsardak egitea. Estalkiko isurkietan terrazak egin ahal izango dira, baldin eta goiko teilatu-hegalarekiko distantzia bi metrotik gorakoa bada, estalkiko planoan neurtua, eta lau metroko luzeratik gorakoa ez badute».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.20 artikuluko 6. apartatuko e) letrako vi) zenbakiko lehen puntua, eta honela idatzita geratzen da:

«6.- Salbuespen hori jarraian adierazten diren baldintzak eta kalifikazioak betetzen dituzten lurzoruetan dauden ustiategi eta lurzati hartzaileetan gertatuko da:

e) Eraikuntzetarako arau estetikoak honakoak izango dira:

vi) Sartzen diren arotzeriek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Arotzeriak zurezkoak edo beste edozein materialez eginak izango dira, eta akaberak zurezkoak izan ahal izango dira, edo marroiz, gurdi-gorritz, beltzez, itsas urdinez edo berdez pintatuak.

Berrogeita bederatzigarren artikulua.

Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.23 artikuluko 4. zenbakia. Honela idatzita zegoen:

«4.- Bi isurialdeko estalkiz egin ahal izango da, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izango dute».

Berrogeita hamargarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.30 artikulua 3. apartatuaren lehen paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren bidez ezarriko dira. Nolanahi ere, horretarako aukera ematen duen tresnak gehieneko zehaztapen hauek bete beharko ditu:».

Berrogeita hamaikagarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.1 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Oin berriko instalazioak ezartzeko edo atal honetan sartutako azpiegitura edo instalazio batzuk handitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-legeria orokorrean xedatutakoa beteko da. Nolanahi ere, hirigintza-legeria orokorra aplikatuz atal honetan jasotako azpiegitura edo instalazioetako batzuk gauzatzeko onartu behar diren plan bereziek legeria orokorrean eskatutakoa jasoko dute, eta Plan honen V. tituluan eta honako apartatu hauetan horri buruz adierazitakoaren arabera izapidetuko dira:».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.1 artikuluko 2. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Foru-errepide edo udal-titulartasun publikoko bideetan oin berriko esku-hartzeak garatzeko proiektuen edo tresnen kasuan, proposamenak hainbat zehaztapen jasoko ditu honako alderdi hauei dagokienez:».

Berrogeita hamabigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.2 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Oin berriko ezarpenetarako esku-hartzeak berriazko araudian eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera egingo dira».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.2 artikuluko 4. apartatuko lehen apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Jabari publikotik kanpo handitzeko esku-hartzeak berriazko araudian eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera egingo dira».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.2 artikuluko 5. apartatuko bigarren paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Edonola ere, esku-hartzeak amaitu ondoren lehengoratu egin beharko dira behin-behineko erabilerek okupatutako lursailak. Natura-inguruneari eragindako afekzioari dagokionez, proiektuak beharrezko diren babes-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak ezarri beharko ditu».

Berrogeita hamahirugarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.3 artikuluko 3. apartatuko lehen apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Oin berriko ezarpenetarako esku-hartzeak lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera gauzatuko dira».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.3 artikuluko 4. apartatuko lehen paragrafoa. Hau da, 4.4.4.3 artikulua 3. apartatuaren laugarren paragrafoa bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Handitzeko esku-hartzeak egiten badira, lurralde- eta/edo hirigintza-legeriak ezarritako prozeduraren arabera egingo dira».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.3 artikuluko 5. apartatuko bigarren paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Edonola ere, esku-hartzeak amaitu ondoren lehengoratu egin beharko dira behin-behineko erabilerek okupatutako lursailak. Natura-inguruneari eragindako afekzioari dagokionez, proiektuak beharrezko diren babes-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak ezarri beharko ditu».

Berrogeita hamalaugarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.4 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Oin berriko azpiegitura mota hori ezin izango da Gune Gainkategorietan ezarri. Gunearen Babes eta Trantsizio Gainkategorietan, ezarpena lurralde- eta/edo hirigintza-legeriak ezarritako prozeduraren arabera egingo da.

Plan honetan Gunearen Babes eta Trantsizio Gainkategorietan sartutako lurzoruetan egiten bada, ibilbideak, ahal den neurrian, lehendik dauden pista, bidezidor edo bideen trazaduretara egokituko dira, eta trazadura berrietan ezartzeko, Plan honen helburuen arabera ebaluatuko den justifikazio egoki bat beharko da. Kasu horietan, natura-ingurunearen, paisaiaren edo kultura-ondarearen gaineko eraginari dagokionez, beharrezkoa izango da beharrezkoak diren babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak ezartzea».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.4 artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«5.- Edonola ere, esku-hartzeak amaitu ondoren lehengoratu egin beharko dira behin-behineko erabilerek okupatutako lursailak».

Berrogeita hamabosgarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.5 artikuluko 6. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«6.- Trantsizio Gainkategorian, oro har, edo Gunearen Babes Gainkategorian dauden bideen kasuan, lurralde-plangintzan bizikleta-azpiegitura gisa identifikatuta badaude eta bizikleten eta oinezkoen erabilera handia aurreikusten bada, bide horien zabalera 4,5 metrora arte zabaltzeko aukera aztertu ahal izango da, bai eta kolore gorrian edo berdean iragazkorrak diren nahasketa bituminosen bidezko akaberak ere. Ezartzeko proiektuak neurri horien beharra justifikatuko du».

Berrogeita hamaseigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.8 artikuluko 2. apartatuko lehen paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Azpiegitura berriak lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.8 artikuluko 4. apartatuko lehen paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Bere jabari publikotik kanpo handitzeko esku-hartzeak egiten badira, esku-hartze horiek lurralde- eta/edo hirigintza-legeriak ezarritako prozeduraren arabera gauzatuko dira».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.8 artikuluari 7. apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«7.- Natura-inguruneari eragindako afekzioari dagokionez, proiektuak beharrezko diren babes-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak ezarri beharko ditu».

Berrogeita hamazazpigarren artikulua.

1.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.11 artikuluko 3. apartatua. Honela idatzita zegoen:

«3.- Gasa garraiatzeko edo banatzeko sareek, ezarri ahal izateko, plangintza egoki bat beharko dute, plan berezi baten bidez, honi dagokionez plan honek V. tituluak adierazten duenarekin bat».

2.- Behar bezala zerrendatzen dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.11 artikulua 4., 5. eta 6. apartatuak.

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.11 artikuluko 4. apartatuko testua. Hau da, 4.4.4.11 artikuluko 3. apartatua izatera igarotzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Saneamendu-hodiak, eta horien instalazio osagarriak, Busturialdeko Ur Partzuergoaren Kontseilu Orokorrak 2004ko irailaren 29ko saioan behin betiko onartutako Urdaibaiko Saneamenduaren gaineko Lurralde Ekintza Planean aurreikusitakoak izango dira (BAO, 112/2006, 2006ko ekainaren 13koa). Haien araudi espezifikoan eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

4.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.11 artikuluko 5. apartatuko lehen paragrafoko testua. Hau da, 4.4.4.11 artikuluko 3. apartatua izatera igarotzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«5.- Oro har, Lurralde Ekintza Planean jasotzen ez diren saneamendu-hodiak trantsizioko gainkategoria duden pista, bidezidor edo bide-zortasuneko zonetara egokituko dira».

5.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.11 artikuluari 8. apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«8.- Edonola ere, esku-hartzeak amaitu ondoren lehengoratu egin beharko dira behin-behineko erabilerek okupatutako lursailak».

Berrogeita hamazortzigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.12 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Haien araudi espezifikoan eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

Berrogeita hemeretzigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.13 artikuluko 3. apartatuko lehen paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Haien araudi espezifikoan eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira. Nolanahi ere, instalazioak honako arau hauek bete beharko ditu:».

2.- Aldatu egiten dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.13 artikuluko 7. apartatuko 7. zenbakia eta a) letra, eta honela idatzita geratzen dira:

«7.- Instalazio hauek plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik eraiki ahal izango dira:

- a) Sistemen eremuetako –T4.AZ– azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko zonak».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.13 artikuluen 8. apartatua gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«8.- Haien araudi espezifikoan eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira»

4.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.13 artikuluen 8. apartatuaren testua, eta 9. apartatu bihurtzen da. Honela geratzen da idatzita:

«8.- Ura hargune-ingurutik instalaziora deribatu, garraiatu eta banatzeko hodian eta instalaziotik ibai-ibilgura ebakutzeko hodian trazadura, eta ahal izanez gero, horiek dauden

bideetako zortasun-zonetan kokatuko dira. Trantsizioko galkategorian, Urdaibaiko ibai-sarearen eremuan –N.4– eta ibai-sareko babes eremuan –B.4.1– sartutako lurzorua zeharkatu ahal izango dituzte».

Hirurogeigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.15 artikuluko 2. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Plan honek aurreikusten duenez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan oin berriko mota honetako instalazioak honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik ezarri ahal izango dira:

- a) Sistemen eremuetako –T4.AZ– azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko zonak, indarrean jartzen denean».

2.- Gehitu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.15 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Haien araudi espezifikoa eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.15 artikuluko 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3.- Handitzeko esku-hartzeak baimentzen dira trantsizioko galkategoria osoan».

Hirurogeita batgarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.16 artikuluko 2. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.-Plan honek aurreikusten duenez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan hidrokarbuo-zuzkidurarako oin berriko estazioak honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik ezarri ahal izango dira: sistemen eremuetako –T4.AZ– komunitatearen azpiegiturak eta zerbitzuak hartzeko zonak, indarrean jartzen denean. Haien araudi espezifikoa eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.16 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Trantsizioko galkategorian sartutako lurzoruetan, ibilgailu elektrikoak energiaz hornitzeko estazioak instalatu ahal izango dira. Lurzati hartzailearen barnean, instalazioa lurraren malda % 20tik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, eraikuntzaren okupazioarekiko, gutxienez, bost metroko perimetro batean. Lurzoria ez da material bituminoso edo konglomeratu bidez iragazgaitu ahal izango».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.16 artikuluko 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Halaber, hidrokarburoak hornitzeko estazioetan edozein handitzeko esku-hartze egiteko, hirigintza-legeriak ezartzen duena bete beharko da».

Hirurogeita bigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.17 artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.4.4.17 artikulua.- Aire libreko urte-sasoiko aparkalekuak. D.3.5.

1.- Mota guztietako ibilgailuak, hau da, jendearentzako automobilak kokatzeko lursailetan egiten den jarduera da.

2.- Aire libreko aparkalekutzat hartuko dira jabetza pribatuko edo publikoko eremu edo leku irekiak.

3.- Zuzenbide pribatuko pertsona fisikoek edo juridikoek sustatutako aire libreko aparkalekuen kasuan, honako zehaztapen hauek beteko dira:

a) Ekaina eta iraila bitartean egingo da jarduera, biak barne.

b) Gehienez 75 ibilgailuk aparkatu ahal izango dute.

Plan honek Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako T1.TLP Trantsizioko Landa Paisaiako Zona gisa kalifikatutako lurzoruetan soilik gaitu ahal izango dira.

c) Lurzoru berean ezingo dira 1.500 m² baino gehiago okupatu erabilera horretarako; dena den, aparteko kasuetan parametro horiek % 50 gainditu ahal izango dira, baldin eta lurzatiaren eta Hirigintzako Udal Plangintzak Antolatze Eremutzat (HUPA) kalifikatutako lurzoruen arteko distantzia 100 m baino txikiagoa bada. Era berean, % 20tik gorako malda duten lurzatiak ezin izango dira erabilera horretara bideratu. Gainera, lurzatiaren ezingo da, inolaz ere, ur-zuzkidura edo -husteko zerbitzu berriz, argindar- edo argiteria- zerbitzu berriz hornitu.

d) Aparkaleku-zona prestatzeko, aparkaleku-zonatik datorren ura biltzea aurreikusi beharko da, dekantazio- eta erregistro-kutxa batekin batera, ibilgailuak lursailean eragin ditzaketen filtrazioak isuri aurretik jasotzearen.

e) Aparkalekuko seinaleztatze- eta mugatze-elementu guztiak ez-iraunkorrak izango dira.

f) Lursailek gehienez foru-errepide batetik 50 metrotara egon beharko dute.

g) Erabilera ezarri aurretik, udalean aurkeztu beharko da, aparkalekuaren ezaugarriak definitzeko proiektuarekin batera, foru-errepidetiko sarbidea prestatzeko Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Sailaren baimena.

h) Aire libreko urte-sasoiko aparkaleku-erabilera ezarri aurretik, eta erabiliko den lurzoruaren egoeraren ezaugarriak zehaztearen, erabilera ezarri nahi den lurzoruaren gaineko esplorazio-jarduketa bat zertuko da. Hurrengo urteetan ere erabilera hori ezarri nahi izanez gero, eta urte-sasoiko erabileraren ostean lurzoruaren egoera aztertzearen, lau urtez behin erabilera ezarrita egon den lurzoruaren gaineko esplorazio-jarduketa bat gauzatuko da. Hori egin

ostean, eta hala badagokio, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean zehaztutakoa aplikatu beharko da.

Era berean, erabilitako elementu ez-iraunkor guztiak kendu, eta lurzatia erabilera ezarri aurretik zuen jatorrizko egoerara lehengoratuko da.

4.- Administrazio publiko batek sustatutako aire libreko aparkalekuen kasuan, honako zehaztapen hauek beteko dira:

a) Plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan gaitu ahal izango dira: zona publikoak edo pribatuak, eraikuntza-asentamenduak dituztenak edo ez dituztenak, ekipamendu komunitarioak beharrezkoak direnak eta sistemen eremuko –T4.EKR– lurzoru urbanizaezinean prestatu behar direnak.

Era berean, lurzoru hauetan ere ezarri ahal izango dira: nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuetako trantsizioko landa-paisaiako zonak (T1.TLP). Kasu horretan, horiek araudi espezifikotan eta hirigintza-legerian ezarritakoaren arabera egingo dira.

b) Lursailek bide publikora eman behar dute.

c) Bideak eta aparkalekuak egiteko material iragazkorrak erabiliko dira, zagorra edo antzekoak. Ezingo da akaberarik egin nahasketa bituminosoekin, ezta hormigoiztatuekin ere.

d) Aparkaleku-zonak zuhaitzia izan beharko du, aparkaleku-lurzatiek itzalguneak izan ditzaten.

e) Aparkalekurako sarbidea eta ibilgailuak aparkatzeagatik kobratzea kontrolatzen duten elementuak jarri ahal izango dira. 2,00 m-ko gutxieneko galiboa onartuko da.

f) Aparkalekuak ura biltzeko eta dekantatzeko sistema bat izan beharko du, sare orokorrera konektatu aurretik».

Hirurogeita hirugarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.21 artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.4.4.21 artikulua.- Itsas energiaren aprobetxamendurako instalazioak. D.4.4.

1.- Lehorrean prestatuta dauden eta itsasoan metatutako energia elektrikoa bihurtzera bideratzen diren instalazioak dira.

2.- Instalazio hauek, itsas zonan kokatuko diren eta dagozkien baimenak beharko dituzten instalazioak alde batera utzita, plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik eraiki ahal izango dira:

a) Sistemen eremuetako –T4.AZ– komunitatearen azpiegiturak eta zerbitzuak hartzeko zonak.

b) Trantsizioko gainkategoria sartzen diren lurzoruak, salbu eta nekazaritza-balio handiko zonen -T1.A1-, ehuneko berrogeita bost eta hirurogei bitarteko malda (% 45-60) duten basozonen –T2.F2– eta landagunearen eremuaren –T3– kasuan.

3.- Sortutako energia garraiatzeko eta banatzeko azpiegiturak kostaldeko eremuan –N2– eta kostaldearen babes eremuan –B2– kokatu ahal izango dira, ahal izanez gero, lehendik dauden bideen zortasun-zonan kokatuko badira ere».

Hirurogeita laugarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.22 artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.4.4.22 artikulua.- Energia sortzea. D.4.5.

1.- Elektrizitatea sortzen duten instalazioak dira, sare orokorrarekin lotuak, instalazio osagarriak barne, eta autokontsumo-instalazioekin loturarik ez dutenak, azken horiek 4.4.4.26 artikuluan definitzen diren baldintzetan.

2.- Plan honek ez du bere aplikazio-eremuan oin berriko sorkuntza-instalaziorik ezartzea aurreikusten».

Hirurogeita bosgarren artikulua.

1.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.23 artikuluko 3. apartatua. Honela idatzita zegoen:

«3.- Mota honetako oin berriko azpiegiturak ezartzeko, plan berezi bat onartu beharko da aurrez, plan honetako V. tituluan horri dagokionez adieraziarekin bat».

2.- Zuzen zenbakitzen da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.23 artikuluko 4. apartatua. Hau da, 4.4.4.23 artikuluko 3. apartatua izatera igarotzen da, eta honela idatzita geratzen da:

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.23 artikuluko 3. apartatuko f) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Edonola ere, instalazioa honako erregulazio honetara egokituko da»

f) Plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik dago baimenduta instalazio hauek eraikitzea:

- i) Sistemen eremuetako –T4.AZ– komunitatearen azpiegiturak eta zerbitzuak hartzeko zonak.
- ii) Nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuetako trantsizioko landa-paisaiako zonak –T1.TLP–».

4.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.23 artikulua 4. apartatua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«4.- Haien araudi espezifikoan eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

Hirurogeita seigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.24 artikuluko 3. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Plan honek aurreikusten duenez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan hondakin ez-arriskutsuen zabortegietarako oin berriko plantak honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik ezarri ahal izango dira:

a) Sistemen eremuetako –T4.AZ– komunitatearen azpiegiturak eta zerbitzuak hartzeko zonak, indarrean jartzen denean».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.24 artikuluko 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Administrazio publikoek sustatutako azpiegitura-obretatik datozen indusketako soberakinekin egindako betelanak bakarrik baimenduko dira, Peña Forua harrobian egiten diren betelaneen kasuan salbu. Betelanei dagokienez, honako hau adierazi behar da: plan honek sistemen eremuen barnean komunitatearen azpiegiturak eta zerbitzuak hartzeko zona –T4.AZ– gisa kalifikatzen dituen lurzoruetan eraiki ahal izango dira instalazioak. Dena den, nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuetako trantsizioko landa-paisaiako zonetan –T1.TLP– ere egin ahal izango dira, betiere erabilera hori materialen sorburu den azpiegiturari dagokion planifikazio-tresnan jasotzen bada, plan honen V. tituluaren zarritakoarekin bat etorriz».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.24 artikuluko 5. apartatua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«5.- Nolanahi ere, haien araudi espezifikoan eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

4.- Behar bezala aipatzen da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.24 artikuluko 5. apartatua, eta 4.4.4.24 artikuluko 6. apartatu bihurtzen da. Apartatu horren testua ez da aldatzen.

Hirurogeita zazpigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.26 artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.4.4.26 artikulua.- Energia berriztagarria sortzeko instalazioen bidez autokontsumora lotutako energia ekoizteko sistemak. D.6.

1.- Plan honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) Berriztagarriak: iturri berriztagarri ez fosiletatik datorren energia, hau da, haize-energia, eguzki-energia (termikoa eta fotovoltaikoa) eta geotermikoa, ingurune-energia, marea-energia, olatuen energia eta beste itsas energia batzuk, energia hidraulikoa eta biomasatik, zabortegietako gasetik, araztegien gasetik eta biogasetik datorren energia.
- b) Autokontsumoa: Autokontsumo gisa ulertuko da honako hau: kontsumitzaile batek edo batzuek kontsumo-instalazioetatik hurbil eta kontsumitzaile horiei lotuta dauden instalazioetatik datorren energia kontsumitzea.

2.- Orokorrean, trantsizioko zonetan ezartzea aurreikusten da, baina baimenduta dago Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu osoan instalatzea, baldin eta eraikuntzetan integratuta badaude.

Hainbat kontsumitzailek sustatutako instalazioen kasuan, beren ezaugarri teknikoak direla-eta gune edo gunearen babes gainkategorietan dauden lurzoruetan kokatu behar badira, aldeztatik interes publikoko adierazpena beharko dute, eta ingurumen-inpaktua zehatz-mehatz aztertuko duen dokumentu bat.

3.- Energia berriztagarrien arloko araudi sektorialaren zehaztapenei jarraikiz, energia berriztagarrien instalazioen erregulazio xehatua Jarraibide Tekniko Osagarrien arabera arautuko da. Jarraibide horiek dagokion arloan eskumena duen saileko titularraren agindu bidez onartuko dira.

Jarraibide tekniko osagarrien irismena energia mota hauek sortzeko instalazioen ezaugarriak zehaztea izango da: haize-energia, eguzki-energia (termikoa eta fotovoltaikoa) eta geotermikoa, ingurune-energia, marea-energia, olatuen energia eta beste itsas energia batzuk, energia hidraulikoa eta biomasatik, hondakindegiko gasetik, araztegien gasetik eta biogasetik datorren energia».

Hirurogeita zortzigarren artikulua.

1.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.27 artikuluko 3. apartatua. Honela idatzita zegoen:

«3.- Horrelakoak egiteko, beharrezko den plan berezia idatzi beharko da, plan honen V. tituluan ezarriarekin bat etorritz».

2.- Zuzen zenbakitzen da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.27 artikuluko 4. apartatua. Hau da, 4.4.4.27 artikuluko 3. apartatua izatera igarotzen da, eta honela idatzita geratzen da:

Hirurogeita bederatzigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.29 artikuluko 3. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Gainera, lurzatia honela kalifikatuta egon beharko da:

- a) Sistemen eremuetako –T4.AZ– azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko zonak».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.29 artikulua 4. apartatua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«4.- Nolanahi ere, haien araudi espezifikoa eta lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

Hirurogeita hamargarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.1 artikuluko 3. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Erabilera bakoitzak xehatu ahal izango baditu ere eraikuntza hauen eta lurzati hartzaileen urbanizazioaren diseinu-ezaugarri espezifikoak, hau da guztiei eragingo dien arauketa orokorra:

[...]

b) Lehendik dauden eraikinen kasuan, berreraikitze, eraberritze edo zatitze esku-hartzearen bidez erabilera aldatu edo erabilera berriren bat hartu badute».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.1 artikuluko 3. apartatuko b) letrako ii) zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Erabilera bakoitzak xehatu ahal izango baditu ere eraikuntza hauen eta lurzati hartzaileen urbanizazioaren diseinu-ezaugarri espezifikoak, hau da guztiei eragingo dien arauketa orokorra:

[...]

b) Lehendik dauden eraikinen kasuan, berreraikitze, eraberritze edo zatitze esku-hartzearen bidez erabilera aldatu edo erabilera berriren bat hartu badute:

[...]

ii) Estalkiaren formak ez du aldaketarik izango, eta eraikinaren bateratze bolumetrikoa baino ez da baimenduko, betiere eraikitako azalera handitzea eragiten ez badu. Inola ere ez da baimenduko txori-tokirik. Estalkiko isurkietan terrazak egokitzea ez da estalkiaren formaren aldaketatzat hartuko, baldin eta teilatu-hegalarekiko eta goiko gailurrekiko distantzia bi metrokoa bada, estalkiko planoan neurtuta, eta lau metrotik gora luze egiten ez badu. Era berean, zehaztapen hauek bete beharko dira»

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.1 artikuluko 3. apartatuko b) letrako iii) zenbakiko lehen puntua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Erabilera bakoitzak xehatu ahal izango baditu ere eraikuntza hauen eta lurzati hartzaileen urbanizazioaren diseinu-ezaugarri espezifikoak, hau da guztiei eragingo dien arauketa orokorra:

[...]

b) Lehendik dauden eraikinen kasuan, berreraikitze, eraberritze edo zatitzeko esku-hartzearen bidez erabilera aldatu edo erabilera berriren bat hartu badute:

iii) Sartzen diren arotzeriek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Arotzeriak zurezkoak edo beste edozein materialez eginak izango dira, eta akaberrak zurezkoak izan ahal izango dira, edo beltzez, marroiz, gurdi-gorritz, itsas urdinez edo berdez pintatuak.

Hirurogeita hamaikagarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.2 artikuluko 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Eraikinaren paisaia-integrazio hobea dela-eta, beste material batzuk edo fatxada-proporzio berriak erabili ahal izango dira».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.2 artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«5.- Oin berriko, eraberritze edo handitzeko esku-hartzeetarako, egitura-elementu berriak egurrez egingo dira, ahal dela».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.2 artikuluko 5. apartatua 4.4.5.2 artikuluko 6. apartatua izatera igarotzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«6.- Erabilera hauek barne hartzen dituzten eraikinetan ezin izango da, inola ere, familiaren bizitegi-erabilerarik gauzatu».

4.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.2 artikuluari 7. apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«7.- Oin berriko ezarpenetarako edo zuzkidura- eta ekipamendu-erabilera batzuk handitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-legeria orokorrean xedatutakoa bete beharko da».

Hirurogeita hamabigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.3 artikuluko 6. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«Edonola ere, elementu guztietatik muga, bide eta bide publikoetara dagoen distantzia 10 metrotik gorakoa izango da, eta lurzati hartzailearen eraikigarritasuna $0,08 \text{ m}^2\text{e}/\text{m}^2\text{l}$ -koa izango da; dena den, azalera eraikia 750 m^2 -koa izango da, gehienez ere, nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuetako trantsizioko landa-paisaiako zonetan. Erabilera lehendik dauden eraikuntzetan ezarritako gero, azalera eraikia ere hartuko da kontuan eraikigarritasuna zenbatzeko orduan».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.3 artikulua 7. apartatua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«7.- Lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

3.- Zuzen aipatzen da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.3 artikulua 7. apartatua, eta 4.4.5.3 artikulua 8. apartatu bihurtzen da. Apartatu horren testua ez da aldatzen.

Hirurogeita hamahirugarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.4 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Honako hauek bereizten dira:

a) Bakar-bakarrik aire libreko igerileku estali gabeetako uretako jarduerak. Kategoria honetan sartzen dira igeriketarako edo talasoterapiako aisiarako beharrezko instalazioak, otsailaren 18ko 32/2003 Dekretuan eta azaroaren 2ko 208/2004 Dekretuan edo horiek ordezkatzeko dituen arauan erregulatzen direnak. Lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira. Edonola ere, arau hauek ezartzen dira:

i) Instalazio horiek plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik ezarri ahal izango dira:

- Mareaz gairikozko zonetan, horiek lezoi, muna edo uraren zirkulazio-sistemari eusteko hormen bidez isolatuta daudenean eta hiri-okupazioa dutenean – N1.3–.
 - Sistemen eremuko ekipamendu komunitarioko zonan –T4.EKR–.
 - Trantsizioko landa paisaiako zonan –T1.TLP–.
- Erabilera berriarekin okupatuko den lurzatiak, erabilera ezarri aurretik, ur-zuzkidurako zerbitzuak, hondakin-urak sare orokorrera ebakutzeko sistema eta argindarra eta kanpo-argiteria izan beharko ditu, baita bide publikora ematen duen eta gutxienez 25 metro dituen alde bat eta % 15etik beherako batez besteko malda ere.

ii) Ez da, inola ere, jarduerarako behar diren eraikuntzak egitea baimenduko horiek lurzatiak okupatzen duten azalera 6 kaleko eta 25 m luzeko igerileku bat eta erdiri dagokiona baino handiagoa denean.

b) Pilotaleku edo aire libreko joko-zelai libre estali edo estali gabeetan egin daitezkeen kirol-jarduerak. Lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira. Oin berriko esku-hartzearen bidez bakarrik ezarri ahal izango dira:

i) Mareaz gairikozko zonetan, horiek lezoi, muna edo uraren zirkulazio-sistemari eusteko hormen bidez isolatuta daudenean eta hiri-okupazioa dutenean –N1.3–.

ii) Sistemen eremuko ekipamendu komunitarioko zonan –T4.EKR–.

iii) Trantsizioko landa-paisaiako zonan –T1.TLP–.

Erabilera berriarekin okupatuko den lurzatiak, erabilera ezarri aurretik, ur-zuzkidurako zerbitzuak, hondakin-urak sare orokorrera ebakutzeko sistema eta argindarra eta kanpo-argiteria izan beharko ditu, baita bide publikora ematen duen eta gutxienez 25 metro dituen alde bat eta % 15etik beherako batez besteko malda ere».

Hirurogeita hamalagarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.5 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Oin berriko eraikinen kasuan, lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira. Nolanahi ere, zehaztapen hauek ezartzen dira:».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.5 artikuluko 2. apartatuko a) letrako ii) zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Oin berriko eraikinen kasuan, araudi espezifikoa eta hirigintza-legerian ezarritakoaren arabera egingo dira. Edonola ere, zehaztapen hauek ezartzen dira:

a) Oin berriko ezarpenak plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik gauzatu ahal izango dira:

i) Sistemen eremuko ekipamendu komunitarioko zonan –T4.EKR–.

ii) Trantsizioko landa-paisaiako zonan –T1.TLP–, haren lurzati-azalera nekazaritzako gutxienekoaren gainetik badago».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.5 artikuluari 6. apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«6.- Oraingo erabileraren osagarri gisa, 4.4.5.19 artikuluan jasotako jabetxe eta edari-establezimenduen erabilera egin ahal izango dira».

Hirurogeita hamabosgarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.5.5.6 artikuluko 4. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Natura- eta kultura-ondarearen gaineko behaketa, ikerkuntza, interpretazioa edo zabalkundera bideratutako oin berriko eraikinei honako arau hauek aplikatuko zaizkie:

a) Horiek araudi espezifikoa eta hirigintza-legerian ezarritakoaren arabera egingo dira».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.5.5.6 artikuluko 4. apartatuko b) letrako ii) zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Natura- eta kultura-ondarearen gaineko behaketa, ikerkuntza, interpretazioa edo zabalkundera bideratutako oin berriko eraikinei honako arau hauek aplikatuko zaizkie:

b) Instalazio horiek plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik ezarri ahal izango dira:

i) Sistemen eremuetako ekipamendu komunitarioko zonan –T4.EKR–.



ii) Nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuetako trantsizioko landa-paisaiako zonan –T1.TLP–, lurzati-azalera nekazaritzako gutxienekoaren gainetik badago».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.5.5.6 artikuluari 6. apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«6.- Oraingo erabileraren osagarri gisa, 4.4.5.19 artikuluan jasotako jatetxe eta edari-establezimenduen erabilera egin ahal izango dira».

Hirurogeita hamaseigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.5.5.11 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.– Horiek Lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

Hirurogeita hamazazpigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.13 artikuluko 2. apartatuko a) letrako v) zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Plan honek, turismoko ostatu-establezimenduen artean, nekazaritza-turismoen, landetxeen, landa hotelen, landa turismoko apartamentuen eta landa turismoko aterpetxeen modalitateak bereizten ditu.

a) Modalitate horiek guztiek zehaztaperen orokor hauek bete beharko dituzte».

v. Lehendik dagoen eraikin bateko nekazaritza-turismo, landetxe eta landa hotel modalitateen kasuan, eraikinaren azalera eraikia % 15 handitzeko esku-hartzea ere baimenduko da.

Salbuespen gisa, baimendutako handitze-azalera eraikineko gela independenteetan gauzatu ahal izango da, eraikuntzaren lurzati hartzailearen lursailetan, honako zehaztaperen hauen arabera:

- Hori ezartzeko, beharrezkoa izango da ingurumen-inpaktuaren azterketa bat egitea, esku-hartzeak paisaian izango duen eraginaren azterketa jasoko duena. Ingurumen-inpaktuaren azterketak zaintza-plan bat eta behar diren zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak jasoko ditu; neurri horiek dagozkion obra-lizentziari erantsi beharko zaizkio.
- Horiek ezarriko diren lursailak honela kalifikatuta egon beharko dute:
 - Interes kulturalako eremua –N5–.
 - Itsasadarreko babes eremua –B1–.
 - Kostaldeko babes eremua –B2–.
 - Nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuko trantsizioko landa-paisaiako zona –T1.TLP–.
 - Landagunearen eremua –T3–.



- Sistemen eremuak ekipamendu komunitarioko zona –EKR–.
- Gela independenteek honako arau hauek bete beharko dituzte:
 - Zurezko elementu aurrefabrikatuekin egin beharko dira.
 - Ez dute zimendatzerik izango, baina asko jota 25 cm lodiko lur gaineko lauza bidez egindako zimendatze-lanak izan ahalko dituzte; lauza horiek ez dira lurretik gora aterako. Ezin izango dira modu egonkorrean finkatuta egon lurzatian, eta eraitsi gabe jaso ahal izango dira, elementu guztiak erraz garraiatzeko modukoak izanik.
 - Gaueko gunea eta bainugela baino ezin izango dute hartu. Inola ere ezingo dute sukaldetik izan. Gehienez ere 25 m²-ko azalera izango dute, eta gela bakoitza bolumen independente gisa eratu beharko da lurzatian.
- Konfigurazioak honelakoa izan beharko du:
 - Solairu bakarra izango du.
 - Zurezko, beirazko, zeramikazko teila gorriko eta/edo landarediko akaberak izango ditu.
- Kontsumo ia nuluko edo pasiboko eraikinak izan beharko dute, eta energia elektrikoa, berokuntza eta ur bero sanitarioa sortzeko, energia berriztagarriko energia ekoizteko sistemak soilik erabili ahal izango dira. Kasu horretan, ekoizpen-sistemak barruan edo ingurutzailan kokatu beharko dira.
- Ur-hornidurako sistema izan beharko dute, deposituekin, eta uraren kudeaketa.
- Hondakin-urak husteko sare orokorrerako konexio berririk ezin izango da egin; hala badagokio, urak iragazki berdez arazteko sistemak erabili beharko dira.
- Jarduera urte eta erdi baino gehiagoz desagertzen edo gelditzen bada, sustatzaileak, hurrengo sei hilabeteetan, gela independenteak erabat kendu beharko ditu, eta lurzatia jatorrizko egoerara itzuli beharko du. Neurri hori bermatzeko, dagokion udalean abal bat jarriko da, elementu horiek kentzearen kostua bermatze aldera.
- Nekazaritza-turismoen, landetxeen, landa hotel erabilera izango duen eraikineko sarrera material iragazkorrekin egin beharko da, eta oinezkoek eta bizikletek bakarrik erabili ahal izango dute.

Gainera, modalitate horien kasuan berreraikitze esku-hartzea baimenduko da, baina landagunearen eremuan kokatutako eraikinetan bakarrik».

Hirurogeita hamezortzigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.15 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Landetxe-modalitatea lehendik dauden eta erabilera baimendua, toleratua edo azkendua duten eraikinetan bakarrik garatu ahal izango da. Eraikin horiek bat etorri beharko dute, plan honetako III. tituluko 4. kapituluko 2. atalean identifikatzen diren tipologiekin, etxebizitza blokearen tipologiarekin izan ezik, eta gunearen babes edo trantsizioko gainkategorietan edo interes kultureko eremuan sartuta egon beharko dute, azken eremu horri dagokionez Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak ezartzen dituen baldintzetan».

Hirurogeita hemeretzigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.16 artikuluko 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«1.- Landa hoteltzat hartzen dira lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo azkenduak dituzten eraikinetan kokaturiko hotel-establezimenduak, gunearen babes gainkategoria, trantsizioko gainkategoria edo interes kulturalerako eremuan dauden lurzoruetan daudenak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak azken eremu horretarako ezartzen dituen baldintzetan».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.16 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Eraikin horiek bat etorri beharko dute plan honetako III. tituluko 4. kapituluko 2. atalean identifikatutako tipologiekin, etxebizitza blokearen tipologiarekin izan ezik».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.16 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Hotel-establezimendutzat hartuko dira ostatua, jangela-zerbitzuz zein gabe, eta beste zerbitzu osagarri batzuk eskaintzen dituztenak, hala nola jatetxeak eta edari-establezimenduak, eraikin bat osorik edo horren parte independente bat okupatuz, dependentziek osotasun homogeen bat osatzen dutela bere erabilera eskusiboko sarrera, igogailu eta eskailerez, horrelako establezimenduak erregulatzen dituen araudiak jasotzen dituen baldintzak bete».

Laurogeigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.19 artikuluko 2. apartatuko b) letrako i), ii), iii) eta iv) zenbakiak, eta honela idatzita geratzen dira:

«2.- Udalerri bakoitzeko hiri-lurzorurako eta lurzoru urbanizagarrirako araudiak adierazten duen arautuko ditu jardueraren ezaugarriak. Dena den, eta plan honen ondorioetarako, horrelako jarduerak lurzoru urbanizaezinean ezarri ahal izateko, honako arau hauek bete beharko dira:

[...]

b) Lehendik dagoen eta erabilera baimendua, toleratua edo azkendua duen eraikuntza batean ezarri beharko da, eta lurzoruak honako kalifikazio hauetakoren bat izan beharko du:

- i) Artadi kantauriarren zona –N3.5–, Kantera Gorriko esparrua.
- ii) Ondare arkitektonikoko zonak –N5.1–.
- iii) Gunearen babes gainkategoria, salbu eta artadi kantauriarren babes eremuak –B3– eta ibai sarearen babes eremuak –B4–.
- iv) Trantsizioko gainkategoria, salbu eta baso eremua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko intereseko eremuko nekazaritza-balio handiko zona».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.19 artikuluari beste apartatu bat gehitzen zaio, hots, 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Jarduera landa hotelari edo kanpinari lotutako erabilera bateragarri osagarri gisa ezartzen bada, hura ezin izango da azken horrekiko modu independentean instalatu, eta ezin izango zaio erabilera nagusiaren lagungarri- edo osagarri-kontzeptua gainditzeko moduko dimentsioa eman; hori dela-eta, berezko erabileraren arabera justifikatu beharko da osagarriaren beharra».

3.- Berriro zenbakitzen dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.19 artikuluko 4. eta 5. apartatuak. Hau da, 4.4.5.19 artikuluko 5. eta 6. apartatuak izango dira.

Laurogeita batgarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.20 artikuluko 2. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren esparruan, kanpinak 10.000 m²-tik gorako lurzati hartzaileetan bakarrik jarri ahal izango dira, plan honek honela kalifikatzen dituen lursailetan:

[...]

b) Trantsizioko landa-paisaiako zonan –T1.TLP–».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.20 artikuluen 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira. Nolanahi ere, aukera hori ematen duen dokumentuan, erabilera bateragarriak hartzeko eraikuntzen eraikigarritasunari, azalera eraikiari eta altueri buruzko zehaztapenak ezarri beharko dira, hala nola igerilekuak, haurrentzako jolas-eremuak, lotutako zerbitzu-instalazioak edo instalazio osagarriak, hala nola osasun-zerbitzuak, bai eta mugekiko distantziak eta Eraikuntza guztien tartekak, sarbide- eta aparkaleku-eremuak eta abar ere».

Laurogeita bigarren artikulua.

1.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.22 artikuluen 5. apartatua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«5.- Lurralde- eta/edo hirigintza-legerian zehazten den prozeduraren arabera ezarriko dira».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.22 artikuluen 5., 6. eta 7. apartatuak behar

bezala aipatzen dira, eta 4.4.5.22 artikulua 6., 7. eta 8. apartatu bihurtzen dira. Aipatutako 6. eta 8. apartatuetako testuek ez dute aldaketarik izan.

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.22 artikuluko 7. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«7.- Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta kanpaketa-turismoko beste modalitate batzuk antolatzeko uztailaren 30eko 396/2013 Dekretuan edo hura ordezkatzeko duen arauan jasotako arauketaz gain, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:

a) Iragaitzazko autokarabanak eta karabanak hartzeko eremu bat baino ezin izango da jarri lurzati hartzaileak duen gutxieneko nekazaritza-lurzati bakoitzeko. Eremu bakoitzak autokarabana eta karabanentzako 30 m²-ko 8 plaza izan ditzake gehienez ere».

4.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.22 artikuluko 7. apartatuko c) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«7.- Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta kanpaketa-turismoko beste modalitate batzuk antolatzeko uztailaren 30eko 396/2013 Dekretuan edo hura ordezkatzeko duen arauan jasotako arauketaz gain, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:

c) Plazetara iristeko bide bat bakarrik egin ahal izango da, aparkatzeko eta irteteko maniobrak egin ahal izateko behar diren espazioez gain. Bideak eta maniobra-zonak, sarbideak eta plazek garbi egon beharko dute, 3,5 m-ko altueraraino, eta mugetatik 5 metro baino gehiagoko tartera egongo dira. Bidearen materialak iragazkorra izan beharko du».

Laurogeita hirugarren artikulua.

1.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.23 artikuluari beste apartatu bat gehitzen zaio, hots, 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Etxebizitza horiek energia-kontsumo ia nuluko edo pasiboko eraikinak izan beharko dute».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.23 artikuluko 3. apartatuaren idazketa, eta aurrerantzean 4. apartatua izango da. Honela idatzita geratzen da:

«4.- Horrelako jarduerak hartu ahal izango dituzte Urdaibaiko Biosfera Erreserbako gunearen babes eta trantsizioko gainkategorietan kokatuta dauden eta familiaren bizitegi-erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten eraikinek, betiere turismoari buruzko araudiak baimentzen badu. Kasu horretan, jarduera berriari buruzko informazioa eman beharko zaio Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuari».

Laurogeita laugarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.24 artikuluko 2. apartatuko a) letrako ii) zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Plan honek, hurrengo artikuluetan zehazten diren modalitateetako bakoitzerako erregulazio espezifiko batez, honako hauek jasotzen ditu:

- a) Familiaren bizitegi-erabilera berria ezartzea, horretarako zertuz honako esku-hartze hauek:
- i) Oin berrikoa, eraikinaren lurzati hartzaile batean. Kasu horietan, erabilera berria erabilera baimendutzat hartuko da.
 - ii) Zatitzekoa, erabilera baimendua, toleratua edo azkendua duen eraikin batean. Kasu horietan, erabilera berriak mantendu egingo du zatituko den eraikinaren erabilera baimenduaren edo toleratuaren izaera».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.24 artikuluko 2. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Plan honek, hurrengo artikuluetan zehazten diren modalitateetako bakoitzerako erregulazio espezifiko batez, honako hauek jasotzen ditu:

- b) Lehendik dagoen eraikin batean oinarritutako familiaren bizitegi-erabilera azkendua berrezartzea, eraberritzeko esku-hartzearen bidez. Kasu horretan, erabilera berrezarria baimendutzat hartuko da hura landaguneko eremu –T3– gisa kalifikatutako lurzoruetan gauzatzen denean, eta toleratutzat gainerako kasuetan.
Honako egoera hauetan, lehendik dauden eraikinetan ez da, inola ere, familiaren bizitegi-erabilera azkendua berrezarri ahal izango:»

3.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.24 artikuluko 2. apartatuko b) letrako ii) zenbakia. Honela idatzita zegoen:

2.- Plan honek, hurrengo artikuluetan zehazten diren modalitateetako bakoitzerako erregulazio espezifiko batez, honako hauek jasotzen ditu:

- b) Lehendik dagoen eraikin batean oinarritutako familiaren bizitegi-erabilera azkendua berrezartzea, eraberritzeko esku-hartzearen bidez. Kasu horretan, erabilera berrezarria baimendutzat hartuko da hura landaguneko eremu –T3– gisa kalifikatutako lurzoruetan gauzatzen denean, eta toleratutzat gainerako kasuetan.
Honako egoera hauetan, lehendik dauden eraikinetan ez da, inola ere, familiaren bizitegi-erabilera azkendua berrezarri ahal izango:
- i) Antolamenduz kanpoko egoeran.
 - ii) Errepedeetako eraikuntza-lerroaren barnean».

4.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.24 artikuluko 2. apartatuko b) letrako iii) zenbakia aurrerantzean 4.4.5.23 artikuluko 2. apartatuko b) letrako ii) izango da. Testuak ez du aldaketarik jasango.

5.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.24 artikuluko 5. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«5.- Eraikuntza-erabileren diseinuari buruz dagoeneko adierazi denaz gain, bizitegi-eraikinen diseinuan honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:

a) Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 5,60 m-koa izango da, eta gailurrarena 8,50 m-koa. Teilatu-hegala ezingo da jarri 4,50 m-tik beherako altueran. Nolanahi ere, erabilera osagarriak dituzten elementuek azaldutakoa baino teilatu-hegal txikiagoak eduki ahal izango dituzte».

6.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.24 artikuluko 5. apartatuko d) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«5.- Eraikuntza-erabileren diseinuari buruz dagoeneko adierazi denaz gain, bizitegi-eraikinen diseinuan honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:

d) Estalkiak, isurialde bikoia eta maldaduna, hirugarren isurkin bat eduki ahal izango du, mirubuztan eran. Hark gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izan beharko du. Gutxienez 1,00 m ateratzen diren teilatu-hegalak izango ditu.

Dena den, eta bolumen-konposizio osoan txertatuta geratzen denean, estalkiaren % 40rainoko zatia laua egin ahal izango da. Kasu horretan, landare-estalkia egin beharko da, eta mantentze-lanetarako bakarrik iritsi ahal izango da bertara».

Laurogeita bosgarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.25 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Plan honen ondorioetarako, erabilera hau oin berriko esku-hartzeen bidez bakarrik ezarri ahal izango da, landagunearen zona –T3.LG– gisa kalifikatutako lursailetan kokatuta dauden lurzatietan».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.25 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Era berean, familiaren bizitegi-erabileraren mota hau berrezarri ahal izango da, eraberritzeko esku-hartzeen bidez, 4.4.5.24 artikuluan adieraziarekin bat etorritik, erabilera hori azkendu den lehendiko eraikinetan».

Laurogeita seigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.26 artikuluko 2. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Plan honen ondorioetarako, oin berriko esku-hartzeen bidez bakarrik ezarri ahal izango da erabilera hori:

a) Landagunearen zona –T3.LG– gisa kalifikatutako lursailetan dauden lurzatietan oin berriko esku-hartzeak gauzatu».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.26 artikuluko 2. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Plan honen ondorioetarako, oin berriko esku-hartzeen bidez bakarrik ezarri ahal izango da erabilera hori:

b) Familia bakarreko baserrietan, errota, dorretxe eta etxe tradizionaletan dauden familia bakarreko etxebizitza isolatuak zatitzeko esku-hartzeen bidez. Edonola ere, eraikin horiek egoera baimenduan, toleratuan edo azkenduan egon beharko dute, eta ez honako egoera hauetan:»

3.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.26 artikuluko 2. apartatuko b) letrako ii) zenbakia. Honela idatzita zegoen:

«2.- Plan honen ondorioetarako, oin berriko esku-hartzeen bidez bakarrik ezarri ahal izango da erabilera hori:

b) Familia bakarreko baserrietan, errota, dorretxe eta etxe tradizionaletan dauden familia bakarreko etxebizitza isolatuak zatitzeko esku-hartzeen bidez. Edonola ere, eraikin hauek egoera baimenduan edo toleratuan egon beharko dute, eta ez honako egoera hauetan:

ii) Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean».

4.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.26 artikuluko 2. apartatuko b) letrako iii) zenbakia aurrerantzean 4.4.5.26 artikuluko 2. apartatuko b) letrako ii) izango da. Testuak ez du aldaketarik jasango.

5.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.26 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.-Gainera, 4.4.5.24 artikuluan jasotako terminoetan, modalitate hori ezarri ahal izango da erabilera azkendua duten eta lehendik dauden eraikinetan».

Laurogeita zazpigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.28 artikuluko 3. apartatuko bigarren paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Edonola ere, erabilera hori lehendik dagoen eraikin batean ezartzeko baldintzak deskribatzen dituen proiektuak exijentzia bat ezarri beharko du, hau da, lurzatian bertan, eta etxebizitza guztietarako, kanpotiko sarbide komun eta zuzena edukitzea, fatxadan horretarako bao berririk zabaltzea galaraztearekin batera.

Era berean, eraikin horiek baimenduta, toleratuta edo azkenduta egon beharko dute, eta ez dira honako egoera hauetan egongo».

2.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.28 artikuluko 3. apartatuko b) letra. Honela idatzita zegoen:

«b) Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.28 artikuluko 3. apartatuko b) letra kendu denez, 4.4.5.28 artikuluko 3. apartatuko c) letra aurrerantzean b) letra izango da.

Laurogeita zortzigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.29 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Plan honen ondorioetarako, bi familiako baserrietan –edo, hala badagokio, errota, dorretxe eta etxe tradizioaletan– dauden bi familiako etxebizitza isolatuak bi lurzati hartzailetan zatitzeko esku-hartzeen bidez ezarri ahal izango da erabilera hau. Edonola ere, eraikin horiek egoera baimenduan, toleratuan edo azkenduan egon beharko dute, eta ez honako egoera hauetan:»

2.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.29 artikuluko 2. apartatuko b) letra. Honela idatzita zegoen:

«b) Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.29 artikuluko 2. apartatuko b) letra kendu denez, 4.4.5.29 artikuluko 2. apartatuko c) letra aurrerantzean b) letra izango da.

Laurogeita bederatzigarren artikulua.

1.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.30 artikuluko 3. apartatuko b) letra. Honela idatzita zegoen:

«b) Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.30 artikuluko 3. apartatuko b) letra kendu denez, 4.4.5.30 artikuluko 3. apartatuko c) letra aurrerantzean b) letra izango da.

Laurogeita hamargarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.34 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.-Erabilera hori bizitegi-erabileraren osagarri gisa ezarri ahal izango da, bai oin berrikoa denean, bai landaguneko eremuetan –T3.LG– gauzatzen denean, baita trantsizioko landa-paisaiako eremuetan –T1.TLP–, % 30-45 bitarteko malda duen baso-zonan –T2.F1– eta landaguneeen eremuetan –T3– dagoenean ere».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.34 artikuluko 5. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«5.- Ezin izango du urbanizazio gogorrik izan inguruan, eta ez du inolako lur-mugimendurik eragingo, ez bada inguruko lursaila erregularizatzeko beharrezkoa dena. Lursailaren topografia ez da 50 cm-tik gora aldatuko punturik okerreanean».

Laurogeita hamaikagarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.36 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Erabilera hori Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezin osoan ezarri ahal izango da, betiere erabilera baimendua, toleratua edo azkendua duen eraikuntzaren barnean kokatzen bada. Hark ez du, inola ere, 20 m²-tik gorako azalera izango».

Laurogeita hamabigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.38 artikuluko 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Tresnak eta makineria txikia biltzeko instalazioek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.38 artikuluko 2. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Tresnak eta makineria txikia biltzeko instalazioek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:

b) Horrelakoak eraikitzeko, instalazioa hartuko duen lurzatiak 3.000 m²-ko azalera izan beharko du gutxienez. Lurzati hartzailean zatitzeko esku-hartzea gauza daitekeen bizitegi-eraikin bat badago, ez da instalazio hori gauzatu ahal izango».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.5.38 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Landareen landaketarako eta autokontsumorako instalazioak hezetasuna, tenperatura eta landareen landaketa ahalbidetzeko beste zenbait giro-faktore egonkor mantentzeko aterpeak izango dira, material gardenekin artifizialki estaliak eta babestuak. Horrelakoak ezartzeko, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:»

Laurogeita hamahirugarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.6.3 artikuluko b) letrako bigarren apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Gunearen babes eta trantsizioko gainkategorietan dauden eraikuntzen kasuan, eraisteko eta ordezkatzeko esku-hartzeak bakarrik gauzatu ahal izango dira, edo zaharberritzeko, kontserbatzeko, apaintzeko, finkatzeko edo eraberritzeko esku-hartzeak, horrelakoak III. tituluan definitzen diren baldintzetan.

Era berean, landaguneen eremuetan kokatutako eraikuntzak berreraiki ahal izango dira».

Laurogeita hamalagarren artikulua.

1.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.2 artikuluko 3. apartatuko b) letra. Honela idatzita zegoen:

«b) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa izan behar duten lurzoruen erabilerak edo eraikuntza-ekintzak gauzatzeko beharrezko diren proiektu guztiak, horiek geratzen diren lurzoruen gainkategoria dena dela».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.2 artikuluko 3. apartatuko c) letra. Hau da, 5.1.2 artikuluko 3. apartatuko b) letra izatera igarotzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Proiektua behar duten ala ez kontuan hartu gabe, gunearen gainkategorian gauzatu nahi diren lurzoruen erabilera edo eraikuntza-ekintza guztiak, salbu eta Uraren Euskal Agentziak (URA) Urdaibaiko ibai sarearen eremuan –N4– txostena emandako edo baimendutako likido-isurketen kasuan».

3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.2 artikuluko 3. apartatuko d) letra aurrerantzean 5.1.2 artikuluko 3. apartatuko c) letra izango da.

4.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.2 artikuluko 3. apartatuko e)

letra. Hau da, 5.1.2 artikuluko 3. apartatuko d) letra izatera igarotzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«d) Plan hau garatzeko plan bereziak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ingurune fisikoan eragina duten hiri-antolamenduko plan orokorrak eta beste edozein bateragarritasun-plan edo plan sektorial edo jarduketa-programa».

5.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.2 artikuluko 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4.- Zuzendari-kontserbatzailearen txostena beharko duten kasuak honako hauek izango dira:»

6.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.2 artikuluko 4. apartatuko b) letra. Honela idatzita zegoen:

«b) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez duten lurzoruaren erabilerak edo eraikuntza-ekintzak gauzatzeko beharrezko diren proiektu guztiak, horiek gunearen babes galkategorian gauzatzen direnean».

7.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.2 artikuluko 4. apartatuko c) letra. Hau da, 5.1.2 artikuluko 4. apartatuko b) letra izatera igarotzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Lurzoruaren erabilera edo eraikuntza aldatzea dakarten eraikuntzako esku-hartzeak gauzatzeko beharrezkoak diren proiektuak, salbu eta gunearen babes galkategorian gauzatzen diren eta zatiketa edo loturarako esku-hartzeen bidez egiten direnak».

8.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.2 artikuluko 4. apartatuari c) letra berria gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«c) Trantsizioko galkategorian gauzatzen diren eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten eraikuntzako esku-hartzeak garatzeko beharrezko diren proiektuak».

9.- Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.2 artikuluko 7. apartatuko bigarren paragrafoa. Honela idatzita zegoen:

«Edonola ere, udalek planaren aplikazioari buruzko kontsultak egin ahal izango dituzte, hirigintzako lizentziak eman aurretik».

Laurogeita hamabosgarren artikulua.

1.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.3 artikuluari 3. apartatu berria gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Organo informatzailea: Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren Osoko Bilkura edo Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbatzailea, erabakitzen denaren arabera».

2.- Zuzen zenbakitzen dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.3 artikuluko 3. eta 4. apartatuak. Hau da, 5.1.3 artikuluko 4. eta 5. apartatuak izatera igarotzen dira, eta honela idatzita geratzen dira:

Laurogeita hamaseigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.4 artikuluko 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«1.-Plan hau gauzatzean geratzen diren jarduketek, indarrean den legediari jarraikiz, alde aurretik baimena, lizentzia edo jakinarazpena behar badute, organo substantiboak eskuratuko du Patronatuaren Osoko Bilkurak edo zuzendari-kontserbatzaileak baimenaren aurretik eman beharreko nahitaezko txostena. Organo substantiboak zehaztuko du zein izango den organo informatzailea.

Bestalde, indarrean den legediaren arabera, jarduketa horiek ez badute baimenik, lizentziarik edo jakinarazpenik behar, sustatzaileak eskuratu beharko du Patronatuaren Osoko Bilkurak edo zuzendari-kontserbatzaileak eman beharreko nahitaezko txostena».

2.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.4 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Aurreko artikuluetan aipatutako nahitaezko txostenak emateko, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuak Patronatuaren Osoko Bilkurari eta zuzendari-kontserbatzaileari aholkatuko die, kasuan kasuko jarduketaren Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearekiko eta plan honekiko egokitzapenari buruzko txosten baten bidez».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.4 artikuluko 5. apartatuko lehen paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«5.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren Osoko Bilkuraren nahitaezko txostenak eskaria jasotzen denetik bi hilabeteko epean emango dira; Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbatzailearen txostenak, aldiz, hilabeteko epean emango dira, eskaera jasotzen denetik kontatzen hasita».

Laurogeita hamazazpigarren artikulua.

Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.7 artikuluko 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«1.- Plan bereziek, bai eta hiri-antolamenduko plan orokorrek eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ingurune fisikoan eragin dezaketen gainerako plan sektorial edo jarduketa-programek ere, hasierako onespena jaso ostean, jendaurreko fasean Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren Osoko Bilkuraren aldeko erabakia beharko dute».

Laurogeita hamazortzigarren artikulua.

1.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.9 artikuluko 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«1.- Jendeak, oro har, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzura jo ahal izango du Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plan honen interpretazioari buruzko hirigintza- edo ingurumen-kontsultak egiteko, 5.1.2 artikuluan ezarritako esku-hartze administratibo jakin bati dagokionez».

2.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.9 artikuluari 2. apartatu berria gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«2.- Administrazio publikoek kontsulta egin ahal izango dute plana esku-hartze jakin batean aplikatzeari buruz».

3.- Aldatu egiten da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.1.9 artikuluko 2. apartatua. Hau da, 5.1.9 artikuluko 3. apartatua izatera igarotzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«3.- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbatzaileak, gehienez hiru hilabeteko epean, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuak prestatutako txosten teknikoaren kopia igorriko du; txosten hori egiteko unean, egindako kontsultaren kasuan aplikagarriak diren arauetara buruzko irizpide teknikoetara jarraituko zaie. Txostenak izaera informatzailea izango du, eta ez du, inola ere, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuaren Osoko Bilkuraren edo zuzendari-kontserbatzailearen nahitaezko txostena ordezkatzeko plan hau aplikatuz beharrezkoa den kasuetan, betiere Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legean 18.3 artikuluari edo plan honetan zehaztutakoari jarraikiz».

Laurogeita hemezortzigarren artikulua.

Kendu egin da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 5.2.3 artikuluko 4. apartatua. Honela idatzita zegoen:

«4.- Plan hau garatzeko orduan, honako hauetarako plan bereziak aurreikusten dira, gutxienez:

a) Aisia- eta jolas-erabilerak ezartzeko beharrezko diren zehaztapenak xehatzea, hala behar denean, plan honek arautzen duenari jarraikiz. Horiek behin betikoz onartzean berriz

kalifikatuko dira plan berezian sistema eremu, ekipamendu komunitarioen zona –T4.EKR– gisa barneratzen diren lurzorua.

b) Oin berriko azpiegiturak ezartzeko edo azpiegiturak handitzeko beharrezko diren zehaztapenak xehatzea, plan honek erregulatzen dituen baldintzetan. Horien behin betiko onartzean, plan berezian jasotako lurzorua sistemen eremuko zerbitzu azpiegiturako zona –T4.AZ– gisa birkalifikatuko dira.

Plan berezi horiek, hirigintza eta ingurumenaren arloko legediak berariaz jasotzen duenaz gain, eta plan honek ezartzen duen erabileraren erregulazio espezifikoan ezartzen denaz gain, honako hauek jaso beharko dituzte:

i) Paisaiaren gaineko eraginari eta azpiegitura ezartzeko erregulazioari buruzko dokumentu zehatz bat. Dokumentu horrek honako hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- Azpiegitura gauzatzeak eragiten dituen elementuen analisia, baita azpiegitura ikusgai egongo den begi-lerroena ere.
- Azpiegitura paisaian kokatzeko proposamena, hainbat alderdi zehaztuta horretan, hala nola:
 - Inguruan egin beharreko landareztatzea, paisaiako kromatismoei loturiko azterketa eta justifikazioarekin batera.
 - Erabiliko diren hiri-altzariak, hesiak, luminariak edo babes-hesiak, esaterako zura erabiliz lortuko den horien inguruarekiko egokitzapenarekin batera.
 - Azpiegituraren diseinua bera. Horretarako, erabilitako erreferentzien eta egingo diren industria-balio estetiko altuko elementuetarako proposamenaren azterketa bat aurkeztuko da.

Plan honek Urdaibaiko Biosfera Erreserbako eremu osoko saneamendua antolatu eta erregulatzeko plan berezi onartu bat du. Era berean, plan honek plan berezi bat onartzea aurreikusten du Urdaibaiko Biosfera Erreserbako eremu osoko ur-zuzkidurari ekiteko.

c) Zuzkidura- eta ekipamendu-eraikuntzak ezartzeko beharrezko diren zehaztapenak xehatzea, plan honek erregulatzen dituen baldintzetan. Horiek behin betikoz onartzean berriz kalifikatuko dira plan berezian sistema eremu, ekipamendu komunitarioen zona –T4.EKR– gisa barneratzen diren lurzorua.

d) Aparteko kasuetan, hotel gisa erabiltzeko eraikuntzak ezartzeko edo kanpin-erabilera prestatzeko beharrezko diren zehaztapenak xehatzea, plan honek erabilera horiek biak erregulatzen dituen baldintzetan.

Kanpinaren kasuan, behin betiko onespina jasotzea, plan berezian jasotako lurzorua sistemen eremuko ekipamendu komunitarioen zona –T4.EKR– gisa birkalifikatuko dira.

e) Landagunearen zonak –T3.LG– garatzea ahalbidetuko duen erregulazioa zehazteko beharrezko diren zehaztapenak xehatzea.

Plan berezi horietan, legez eska daitekeen dokumentazioaz gain, lehendik dauden eraikuntzak hartzeko lurzatiaren kokapena, etxebizitza-eraikin berriak hartzeko moduko lurzatiaren kokapena, landagunearen perimetroaren mugaketa eta 3.5.3.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera eraikin berri guztietan, modu berean, aplikagarria den itxitura-tipologiaren araudia jaso beharko dira. Gainera, zehaztapen horiek guztiak udal-plangintza orokorrerako tresnaren bidez zehaztu ahal izango dira.



Hurrengo araudia ezartzen da, eta hura landaguneak garatzeko idatzi behar diren plan berezi guztietan bete beharko da:

- i) Eraikin berriek bizitegi-kokapen nuklearra osatzen duten eraikinak barne hartzen dituen esparru publikoaren erdialdera mantendu beharko duten gehieneko tartea ezarri beharko da.
- ii) Lurzati hartzaileek 5 metroko tartea mantendu beharko dute, gutxienez, bide publikotik.
- iii) Lurzatiaren gutxieneko azalera finkatuko da.
- iv) Bizitegi-eraikin berrien kasuan, okupaziorako gutxieneko azalera finkatuko da, landagunean dauden bizitegi-eraikinetako batezbestekora egokitzeko.
- v) Lurzati hartzailearen barruan eraikitako azalera ezin izango da 400 m²-tik gorakoa izan familia bakarreko etxebizitzaren kasuan, eta 600 m²-tik gorakoa familia biko etxebizitzaren kasuan.
- vi) Eraikina mugetatik eta udal-titulartasun publikoko errepedeatatik gutxienez 5 metrora egon beharko da».

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.- Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.